

# ARRASATE PRESS

ITURBE YARZA ANGEL M.  
OLAKUA, 10 C-04. EZK.  
OÑATI  
FRANQUEO CONCERTADO 37-60

Arrasate 1990eko Ekainak 15, 68. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



JOSE ANTONIO MARKAIDE:  
"Unibertsitateetan, irakasle txar  
larregi dago"

**ALECOOP-ek  
25 urte**

Joseba



A R R A S A T E  
K I R O L A K

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

## EGUNKARI BAKARRA BEHAR DUGU, JAR GAITEZEN ADOS!

Euskal egunkaria -ala egunkariak propioago hitz eginda?- ateratzeko bi ekimen (Egunkaria Sortzen deitua: duela hilabete batzuk kaleratua dagoena, eta Jaurlaritzaren Kultur Sailak antolatutako taldearen ingurukoa: oraindik kaleratu gabea) lanean ari direla ikusirik, gogoeta hauek egin eta plazaratu nahi ditugu.

- 1.- Euskal Egunkariaren garaia iritsia dela uste delako, erabat positibotzat jotzen du AEDk aipatutako talde bien inguruan sortu den iniziatiba.
- 2.- Halabaina, une honetan, AEDren eritziz eta baita aditu gehienek eritziz ere, euskal bi egunkarientzako lekurik ez dagoenez biek modu duienean aurrera egiteko moduan, guztiz beharrezkotzat jotzen dugu batasun bideari ekitea, oraingo bi ekimen horietatik aurrera egiteko garantiak izango dituen euskal egunkaria bakarra gauza dadin.
- 3.- AED bat dator Ikastolen Konfederakundearekin egunkari bakar hori "pluralista, autonomia eta titularitate konpartiduna" izan beharko duela esaten duenean.
- 4.- AED, azkenik, batasunaren bidea jorratzeko prest dago, horretarako alde guztiei bere lankidetzak eskatzen eta eskaintzen dielarik.



## ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1,  
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

### Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin  
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan  
Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito  
Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi,  
Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo  
Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz,  
Maite Toledo, Atalataikoan,  
ASA Taldea.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

### Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 7.000 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

**Frankeo kontzertatua:** 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-  
tzen erantzunkizunik.



# Harmonika

Ba al dakite oraingo gazteek zer den harmonika? Bizi al dituzte inoiz instrumento xehe horren erabileraz, guk ez hain gazteok sentituriko sentzasioak?. Nire esperientziari dagokionez, ahosoinu baten irudia azaltzen zait iragan zirriborrotsu bezain kuttunean. Gaur goizean ijitu haur batek, izandako garaietaruntzeko aukera eskaini dit, bere aurretik pasatzen ari nintzela eta txanpon batzuren esperantzan melodia baten notak iristerazi dizkidanean. Harmonika bat zerabilen bere ezpaine-tan.

Berehala berragertu zaizkit orduko gomutapenak; alai eta tristek, ahosoinuak gogo egoera desberdinetarako bide uzten baitzuen. Izpiritubakardadeko intimitatean nahiz lagunen arteko parranda zaratatsuetan harmoniak une garrantzitsuak betetzen zituen, apal apalki. Oraingo musikogaiek nekez aukeratuko zuten ahosoinu erakargarri harek, errealitate animiko diferenteei erantzuten zien egokiro, etorkizuneko asmoen izatekoa azaltzen ez genuenon baitan, bereziki.

Gaztaroko nire lagun batek, Valladolidera ikasketak egitera joan eta

herrimin sakonak jota, arratsalde luzeak ematen zituen ohe gainean etzanda "Maritxu nora zoaz", "Andre Madalen"... eta erreperitorio folkloriakoaren gainerako doinuak borobiltzen, euskal giro aukerakoa sortzeko ahaleginetan. Herriratzeko gogoa indartsuago izan omen zen, estudioak bertan behera utzi eta Arrasatera itzuli baitzen. Ez diot inoiz galdetu zer egin zuen bere une triste haiek gainditzen lagundu zion harmonika hartaz.

Nire kasuan, berriz, John Mayallen kezka musikatuak eta haizean omen zeuden galdera dylaniarrak nituen gogoko. Nik badezaket esan aspaldi zokoratu nuela instrumento txiki hura eta oraindik haizeetako galderek hortxe darraitela, erantzunik gabe.

Gaurko ijito-haurra ikusi dudanean ahosoinuaren izanaz berjabertu naiz; ahaztuta neukan. Eta non arraio gorde nuen gogoratzeko saiatu naizen arren, alperrik izan da. Agian, ezin dut aseguratatu, egun txarren bateko erabaki eroak zakarrontzira jaurtikiko zuen.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**MARTINEZ**

**aroztegia**

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzarak

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**IKASTARO TRINKOAK**

**UZTAILAN**


Informatika • Kontabilitatea.  
Takigrafia • Mekanografia.  
Klase partikularrak.  
Injinerutza Teknikoa:  
Termodinamika.

AKADEMIA

**BASTIDA**

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Informazioa eta  
izen ematea:  
Ferrerias 44,  
Tfnoa: 79 32 16  
Arrasate



**losteko**

**OHIALAK**

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90  
ARETXABAETA

**Herriari**

S.Frantzisko Xabier ikastolako zazpigarren mailakoak gaituzue. Denok gazteak izan arren, gure herrian dauden arazo guztiak ikusteko gai gara, eta egoera ez dela oso ona onartu beharra dugu. Akats houei buruz idatzi nahi dizuegu eskutitz hau.

Eskutitz honetan, arazo larri batzuk aipatzen dizkizuegu. Ea konturatzan den jendea, hori ikustean, horrelako gauzak ez direla egin behar, herria zikin eta zatar ikusi nahi ez badute. Eta biztanle guztiok, guk bame, lotsa sentitu beharko genukeela uste dugu.

Hori dela eta, koplak motz batzuk egin ditugu, zuen astekarian, zuen baimenarekin noski, agertzea nahi genukeelarik. Hauek dira horietako batzuk:

- Kaleak zikinak ikusi nahi ez badituzu,
- Papelak zakarrontzira bota beharko dituzu.
- Etxeko hormak zaintzen dituzu? Orduan kalekoekin berdin egin ezazu.
- Autoek bozina jotzen dute ezer-gatik eta gorrak geldituko gara horre-gatik.
- Edozer gauzgatik autoek jotzen dute turuta; horrela jarraitzen badugu gure belarriak daude galduta.
- Zakarrontziak zertarako? kallean botata egoteko?
- Abiadura handia, kanposanturako bidea.
- Kabinak apurtuta badaude "Nondik deitu behar da?" egiten dut nik galde.
- Txikleak daude lurrean, pintadak hometan. Nora heldu nahi duzu horrelako herrietan?
- Parkeetan gauzak apurtu, honela zer lortu? Natura agortu.
- Eserleku esertzeko, ez apurtzeko!

Koplak zuen gustokoak izango direlakoan, besterik gabe, zazpigarren mailako gazteak eskerrak eman ez, begiramenez agurtzen zaituztegu.

**Kooperatibista taldeak**

**Urteroko Afaria dela eta**

*"Gure kooperatiban Klase diferentziarik ez dagoela esaten dute eskuak garbiturik..."*

Nolabait besto hauen izpiritupean jaio zan "K. Taldea" talde sindikala, kooperatibako langileen eskubideak defendatzeko asmoz (ez dezagun ahantzi sindikazioa ez zela posible urte gutxi batzu arte).

Izan ere, ikusten ditugu hainbeste urte borroka sindikalean emon ondoren, zenbait lorpen. Orain behintzat kontutan gehixago hartuten gaituzte, garai baten hori be ez.

Beraz, lan-arazoetaz kezkatutik bazagoz, kooperatibista-langile, hemen daukazu gurekin harremanetan jartzeko aukera, hainbeste urteetan lez, egingo dogun afarixa dala eta.


Beraz, anima zaitetz, zatoz K. T.koen afarirara!

*Kooperatibista Taldea*

**Bideofilme eskasak**

Oso ondo zegoen Bideoei buruz atera zenuten erreportaia. Niri era gehiegitan gertatzen zait oraindik, zoritxarrez. Hirurehun pezeta ordaindu, etxera eraman eta ezin pelikula ikusi, dena kerizpez eta marraz josita dagoelako. Auskalo zenbatgarren kopifaren kopia eskasa izango den! Erbikiaren ordez katukia saltzen digute, bat ere lotsa barik.

J.B.



## Zer eritzi duzu Erreal eta Athletic-en artean sortu den tirabirari buruz?



**Joaquin Murua**  
(Langilea)

Egia esan, ez dakit iskanbila zertan den ere. Ez zait futbola bat ere gustatzen, eta ez dut ulertzen



**Mari Paz Rodriguez**  
(Langilea)

Ez zait futbola bat ere gustatzen, eta beraz, ez diot jaramonik egiten.



**Mari Karmen Mendiaratz**  
(Etxekoandrea)

Entzun dut zerbait iskanbilari buruz. Lastima iruditzen zait eskaldunok elkarren kontra aritzea, gure artean haserretzea, eta guztia




**Juanito Lizarralde**  
(Tabernaria)

Futbolaren munduan, aspaldiko baloreak galdu egin dira. Gaur egun garrantzitsuena dirua bihurtu da, eta ondorioz, normala iruditzen zait jokalaria hobeto pagatzen duten taldeetarara joatea.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



### BADUKAGU AUTOBUSA!!!

ARRASATE - ESKORATZA

## Memesa

### 79 42 22

## KAJOI TABERNA

erdiko kale 22  
tfnoa: 79 32 27

*Jesus Giraldo*

## LISERI-APARATUA

### X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adesias (Muface) eta partikularrak

Kontsulta arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14. ARRASATE

## KOPIOTXOA


*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**



**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZANTZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
--	----------

**15 OSTIRALA**

--- Zinea: Alai: "El cielo se equivocó". 7 eta 9.30etan.

Novedades: "Un hombre inocente". 10.30etan.

--- Bertso afaria. AED elkartearen egoitzan, gaueko 9.30etan.

--- "Mendi Astea 90": Larra Belagua emanaldia. Amaia antzokian, gaueko 10etan.

--- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

**16 LARUNBATA**

--- Zinea: Alai: "El cielo se equivocó". 5, 7.30 eta 10.30etan.

Novedades: "Un hombre inocente". 5, 7.30 eta 10.30etan.

--- S. F. Xabier Ikastolaren polikroidegi berriaren inaugurazioa. Eguerdiko 12etan.

--- "Mendi Astea 90":  
- Mountain bikez txangoa. Goizeko 8etan.

- Ikarus taldearen hegaialdia. Muru edo Udalaizetik, arratsaldeko 4etan.

- Rokodromoaren inaugurazioa. Arratsaldeko 6.30etan, Kiroledegian.

--- Egunkari eguna:

--- San Juan jaiak:  
- Umeen Danborrada, Eskoriatzako Musika bandarekin. Herriko kaleetan zehar, arratsaldeko 7etatik aurrera.

- Dantzaldia, Txintxari taldeak alaituta. Herriko Plazan gaueko 10.30etan.

--- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

**17 IGANDEA**

--- Zinea: Alai: "El escándalo Blaze". 5, 7.30 eta 10.30etan.

Novedades: "Un hombre inocente". 5, 7.30 eta 10.15etan.

--- "Mendi Astea 90": Mendi ibaldia, Abadiño-Anboto-Arrasate.

--- Dantzari Txiki Eguna:  
- Dantza taldeen desfilea, Nafarroa etorbideetik Herriko Plazaraino. Goizeko

10.45etan.

- Kalejira eta dantzak, herriko kaleetan zehar, eguerdiko 12etan.

- Dantza talde guztien aktuzioa, arratsaldeko 5etan. Herriko Plazan.

--- San Juan jaiak:

- Makailu lehiaketa. Sebero Altube plazan, goizeko 10.30etan.

- Tortila lehiaketa. Sebero Altube plazan, arratsaldeko 6etan.

- Dantzaldia, Gaurko Berni taldeak alaituta. Arratsaldeko 7.30etan, Herriko Plazan.

--- Goardiako farmazia:

L. Amezua. Sta. Marina.

**18 ASTELEHENA**

--- Zinea: Alai: "El escándalo Blaze". 7 eta 9.30etan.

Novedades: "Un hombre inocente". 7.30etan.

--- Mahaingunja: "Euskadiko futbol selektzioaz". Parte hartzaileak: Inaxio Kortabarna, Xabier Expósito, Iñaki Elortza, Xabier Bengoetxea. Moderatzaile: Pello Bengoetxea. Monterronen, 7etan.

--- Goardiako farmazia:

A. Ruiz. Madalena.

**19 ASTEARTEA**

--- Zinea: Alai: "El escándalo Blaze". 7 eta 9.30etan.

--- AED k antolatutako 1989ko lehiaketetan saritutako lanek osatutako bi liburuen aurkezpena. Monterron Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan.

--- Goardiako farmazia:

A. M. Morales. San Andres.

**20 ASTEAZKENA**

--- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.

--- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrenas.

**21 OSTEGUNA**

--- Zinea: Alai:

--- Zinekub: "El verano de Aviya". Arratsaldeko 8.30etan, Amaia antzokian.

--- Goardiako farmazia:

S. Español. Ituriz.

**LEHIAKETAK**

• Toki ageriko pintura lehiaketa. Ekainaren 17an, goizeko 9etatik eguerdiko 2etara. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatuta.

**ERAKUSKETAK**

• Toki Ageriko Pintura lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa. Monterron Kultur Etxean, ekainaren 17tik 23ra bitartean.

## MAHAINGURUA

# Euskadiko futbol selekzioa

*Partehartzaileak:*

- **Iñaxio Kortabarria** (Jokalari ohia)
- **Jabier Expósito** (Selekzioaren entrenatzaile ohia)
- **Iñaki Elortza** (Euskadi Irratiko kazetaria)
- **Xabier Bengoetxea** (Errealako jokalaria)

*Moderatzailea:*

- **Pello Bengoetxea** (Mondraren entrenatzailea)

*Eguna:* astelehena, ekainak 18

*Tokia:* Monterron Kultur Etxean

*Ordua:* 7etan.



## “ARRASATE 89” Lehiaketen eta “JOKIN ZAITEGI ITZULPEN LABURREN III. SARIKETA”ren sarituzko lanez osatutako **BI LIBURUEN AURKEZPENA!**

*Eguna:* ekainak 19, asteartea.

*Lekua:* Monterronen, 7etan

**Aurkezpenean hainbat sarituk  
hartuko dute parte!**



“Duela urte batzuk (Andoni) Zubizarretak nazionalistatzat jo zuen bere burua. Hura gogoratzean, barreari ematen dio. “Gaztea eta gainera ez nintzen zuhurra. Eritzi politikoez partikularrak izan behar dute; zeren eta une jakin bateko eritziak, hiru egun geroago irakurri eta galdetzen diozu zeuri buruari: “Baina nola esan ote nuen hau?” Ba, haserre nengoe-lako edo gau txarra izan nuelako. Baina horrelako aitorpenak jadanik jendeak Biblia bezala hartzen ditu. Horregatik ez da komeni zenbait gauza gizarte mailako bihurtzea. Nire pentsakera ez da aldatu, baina ikuspegia, bai. Kanpotik gauzak ez dira berdin ikusten. Ez zara bizi han gertatzen diren gauzen menpean, eta horri esker, ikuspegi zabalagoa izan dezakezu.

(...) “Euskadik baditu baliabideak gauzak ongi egiteko: jendearen lanerako borondatea, entrega, leialtasuna. Aurre-aurrean egon gintezkeen baina, halaere, gero eta gehiago ari garela mugatzen uste dut eta herrialde arteko lasterketan oso zaila da galdutako denbora irabaztea”.

(Andoni Zubizarreta Bartzelona F.C.eko atezainak  
El Pais egunkariaren “Estilo” aldizkarian)

“Erabaki honekin ezer gutxi konpontzen zaio Arrasate Musikali, zeren hiru urte pasatu ondoren, oraingoetan aurkituko gara berriro, dena orduko alkatearen eskuetan utziz.

Eta denok dakigu nor izango den Arrasateko hurrengo alkatea”.

(Aitor Orobengoa zinegotziak, Arrasateko Udalaren  
azken osoko bilkuran)

Zer iritzi duzu postgradua-tuentzat amaitu berri den Kontsumo-ikastaroaz?

Kurtso hasieran finkatu ge-nituen helburuak bete ditugula uste dut. Ikastaroa kontsumo gaietan lanean diharduen jende-ari edota horretan lan egiteko asmoa duenarentzat antolatu dugu. Behar bada, espero ge-nuen baino jende gutxiago izan da ikastaroan, baina kontuan izan behar da Eskoriatza ez dela lekurik apro-posena. Datorren urtean, Irakasle Eskolak, hiru ikasta-ro antolatuko ditu kontsumoaz Gasteiz, Donostia eta Bilbon. Ikastaroak hiru atal izan ditu. Lehen moduloan, ikasleei kontsumo hezkuntzaren oinarri pedagogikoak eman dizkiogu. Modulo hau Bartzelonako Unibertsita-teko eta Irakasle Eskolako irakasleen esku egon da. Nik ikasleak oinarri pedagogiko hauek oso pozik jaso di-tuztela esango nuke.

Bigarren moduloan, kontsumo munduko edukiak eman dizkiegu ikasleei. Jendea harritu egin zen, ez bait zuten uste kontsumo gaiak horren zabalak izan zitez-keenik. Irakasleek nomalean, oinarri pedagogikoak izaten dituzte, baina kontsumo edukiez hutsunea izan ohi dute. Eskaini zitzaizkien gaiak oso pozik jaso zituz-tela uste dut.

Hirugarren moduloan eskoletan aplika daitezkeen lan teknikak eman dizkiegu.

Ikasleei egunero balorazio fitxak pasa dizkiegu eta batz bestea nahiko balorazio ona egin dute.

Zenbaitek ikastaroa gogorra izan dela aipatu izan du, lau hilabetetan zehar egunero hiru ordu izan direlako.

Luis Mari Alvarez  
Kontsumo ikastaroaren arduraduna

## AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garrantzia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate



# Egunkari Eguna Arrasaten

Larunbatean, Sebero Altube Plazan

Larunbatean, ekainak 16, Arrasaten Egunkari Eguna izango da. Egun honetan, Sebero Altube plazan, jai txiki bat izango da. Jaiaren elementu zentrala, bertan jarriko den egunkari erraldoia izango da. Dena dela, Aizpurutxu hankapalo taldearen ekitaldia, txalapartariak, trikitalariak eta haur jolasak ere presentzia izango dute Egunkari Egunean. Egunkarian, aurrez jasotako iragarki eta berriak idatzi edota marraztuko dira.

Arrasateko Egunkaria Sortzen batzordeak, hilaren 13an AED kultur elkartearen lokaletan, egin zuen bileran zehaztu ziren Egunkari Egunean egingo diren ekintzak.



Gogoratu bestalde, hilaren 23an Egunkariaren aldeko kuestazioa egingo dela. Kanpainan lagundu nahi dutenek, egun hauetan parte hartzeaz gain, 1.000 pta.ko bonoak eta 5.000 pta.ko akzio partizipazioak eros ditzakete.

Ekintza hauek, Egunkaria Sortzen taldeak kaleratu nahi duen Egunkariaren aldeko kanpaina barruan kokatzen dira. Egunkaria Sortzen taldeak 150 milioi lortu nahi ditu, udazkenean Euskal Egunkaria kaleratzeko.



## Haurren eskulanean erakusketa

Aste honetan Arrasate Pasealekuan, lehen Lamiak denda zegoen lekuan, S. Frantzisko Xabier ikastolak eskulan erakusketa eratu du. 3. urtea da ere honetako erakusketa antolatzen duela. Aurreko bi urteetan Monterronen egin zituzten.

Erakusketan Eskolaurrea, Hasiera zikloa, Erdi zikloa eta Goi zikloko ikasleek egindako eskulanak erakusten dira.

Hormirudiek ere tokia izan dute erakusketan.

# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESQUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**



**ETXE-AUNDI**

Dastapen-menua  
ekainaren 22rako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
- Ahate-konfitearen entsalada epela perrebikoekin
- Txahal-solomoa espinaka gainean Rossini saltsaz
- Errekako amorraina ziapetsabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
- Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.

2.900 pztla BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI

### ■ Espaloi edo spazio erreserba

Ekainaren 11tik uztailaren 11ra bitartean ordaindu ahal izango da, borondatezko epean, espaloi-pasagune edota spazio erreserbaren zerga. Epe hori pasa ondoren, %20ko gainkargua ordaindu behar da.

### ■ Publizitate-zerga

Arrasateko Udalak, udalerriko zergadun guztiei jakin erazten die 1990eko Publizitate-zergaren ordainagiriak uztailaren 9tik irailaren 4era, borondatezko epean ordain daitezkeela.

Epe hori pasa ondoren ordaindu gabe daudenak %20ko gainkarguarekin kobratuko dira

### ■ Kalean "Ekintza" ren 6. alea

Arrasateko jubilatuen egoitzek elkarlanean plazaratzen duten Ekintza aldizkariaren maiatzeko alea, dagoeneko kalean dago. Ale honetan besteak beste, Udal-zerbitzuak, osasuna eta mitologia, gaiak lantzen dira. Umoreak eta poesiak ere, lekua aurkitu dute ale honetan.

### ■ Abaroako tabernaren ustiapena konkurtsora

Arrasateko Udalak, Abaroa, jubilatuen egoitza ustiatzeko konkurtsoko deialdia egin du. Printzipioz urtebeteko ustiapen baimena jasoko da, baina bost urteko luzapena izan dezake. Interesa dutenek, Udal idazkaritzara jo behar dute.

### ■ Ur, zabor eta estolderi tasa

Uztailaren 11ra ur, zabor eta estolderi tasak borondatezko epean ordain daitezke. Uztailaren 11tik aurrera, ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.



## Nekazaritza egoera negargarrian

### *P. Monterok Deba Garaiko Nekazal Sektorea ikertu*

Patxi Monterok bukatu berri du, Arrasateko Udalaren enkarguz egin duen Deba Garaiko Nekazal Sektorearen ikerketa. Azterketaren helburua, Deba Garaiko nekazal sektorearen egoera ezagutzea izan da.

Zortzi hilabete behar izan ditu Monterok lana bukatzeko. Ikerketaren ondorioa kezagarria da, bailarako nekazaritza egoera penagarrian dagoela ikusten da eta.

Zenbait datu adierazgarri aipatzen da ikerketan, egoeraren ispilu gisa. Lehenik eta behin, nekazal esplotazioa diren gero eta baserri gutxiago dago. Baserriak, birmoldaketa prozesua jasaten ari dira eta etxibizitza arunt bihurtzen.

Besarrietako populazioa, berriz, zahartzen ari da eta ondorengoek baserriko lanak egiteari uko egiten diote. Ondorioz, gaur egungo base-

rrietako biztanleak desagertzean, baserriek ekoizteari utziko diote eta jarraipen biderik ez da ikusten.

Aipatzekoa da ere, dauden nekazal esplotazio urriak, oso gutxi produzitzen dutela eta gehienek beste diru iturriren bat dutela. Aztertu diren mila eta piku baserrietatik, 150 baserritar baino ez da bizi, lurrak ematen duenetik.

Monterok azaldu digunez, kezkatzekoa da baserritarrek betiko nekazal produktuak ekoizteko joera izatea.

Konponbidea baserritarrek heziketa handiagoa izatea, ekimen berriei laguntzak ematea eta administrazioek laguntza serio eta handiak ematea izan daiteke.

Ikerketaren emaitzak Mendi Nekazaritza Elkarteak erabiliko ditu.

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA** -k  
zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu  
Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



## Ospitala berrizteko baimenik ez

### ELAk Osakidetzaren asmoak salatu

Pil-pilean daude gauzak Eskualde Ospitalean. Bost anestesista argentinar etorri dira, baina hiruk oraindik ezin dute lanik egin. ELA bestetik, Osakidetzak dituen asmoen kontra azaldu da. Udalak, berriz, ukatu egin du zentrua berrizteko lanak egiteko baimena.

Ekainaren leian bost anestesista argentinar etorri ziren Arrasateko Ospitalean lan egitera. Osakidetzak kontratatu zituen, baina eurentariko bik bakarrik dute Gipuzkoako Anestesisten Elkartearen kolegiarioa. Beste hirurei datorren astelehenean helduko zaie behin behineko kolegiarioa eta orduan bakarrik has daitezke lanean. Behin betiko kolegiarioa, berriz, gaur Madrilan egindako azterketa gainditutakoan emango zaie.

Aste honetan, egoera normaldu bitartean, anestesista euskaldunak

ari dira lanean. Aurrez ikusitako operazio guztiak egiten ari dira.

ELA sindikatuak, bere aldetik, kritikatu egiten ditu bere aldiakariaren azken alean Osakidetza eta Freire Osasun Sailburuaren Eskualde Ospitaleko asmoak. Oraingo erai-kuntza ez zela ospitale izateko dio eta zerbitzu berriak eskainiko dituen edifizio berria eskatzen du ELAk.

Eskualde Ospitaleko zuzendari-tzak, berriz, aurrera segitzen du Osakidetzak seinalatutako bidetik. Horrela, Anbulategiko 3. solairuan eta baita ospitaleko etxebean obrak egiteko baimenak eskatu dituzte.

Udalaren azken Gobernu Batzordeak, baimena ukatzea erabaki du. Baimena ukatzeko orduan Udalak arrazoi urbanistikoak izan ditu kon-tuan eta proiektua osotasunean eza-gutzea ezinbestekotzat jo du

## Usteak uste...

Paperezkoa izan balitz ez zukeen halako ikusminarik sortuko. Hala ere, astearte arratsaldean paperezkoa ematen zuen Ferixalekuko Larragain etxeak. Nahikoa izen zen hondeatzeko makinaren burdinazko besoa, Larragain ordubetean suntsitzeko.

Ikusteko zoria izan genuenok Mondragoeren historiaren beste orrialde bat pasatu izan balitz bezala gelditu ginen.

Behin new yorkear baten istorioa entzun nuen. Egunero bezala, gure gizonak alaba bidali zuen ogitan. Egun hartan, ordea, inoiz baino gehiago luzatu zen neskatila. Azkenean iritsi zen etxera, baina ogi barik. Ez zuen okindegia topatu eta galdu egin zen. Ez da posible, kale kantoian dago! esan zuen aitak eta kalera irten zen, alabarekin batera.

Betiko kale kantoira joan eta... han ez zegoen okindegirik, bideo denda berria baizik. Dena egun batean aldatuta!

Gure artean gauzak ez doaz hain aguro, baina dudarik ez dago Arrasateren itxura ikaragarri ari dela aldatzen. Pentsa ezazue denbora laburrean Maxi Eroski, saihesbidea, eta Kataideko industrialdea, etorri zaizkigula. Laster Ferixalekua aldatuko da egingo diren pilotaleku eta etxeak direla eta. Gauza bera Iturripe aldean.

Egun hauetan atera ditugun argazkiak laster ager litezke Fotozahar orrian, historia izango dira eta.

Joxe Aranzabal

# Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

# E D E L TAPIZTEGIA

Gortina  
Alfonbra  
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA



## Altamirako etxeak urrirako

### Berrogei erreklamazio aurkeztu dira

Altamira auzoan egiten ari diren babes ofizialeko etxeak eskuratzeko puntuazioen zerrendak kaleratu zirenetik 40 erreklamazio jaso ditu Arrasateko Udalak.

Gogora dezagun, Altamiran egiten ari diren babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko, 500 eskaeratik gora joso zirela Udaletxean.

Etxebizitzaren adjudikazio-zerrenda kaleratu zenenetik, 40 erreklamazio aurkeztu dira, puntuazioak aldatu asmoz. Funtsean bi arrazoi erabili dituzte erreklamatazaileek, eskakizuna egin zenetik hona gertatutako

egoera aldaketak, seme berrien jaiotza, langabezian gelditzea, etab., edota puntuazio altuagoa lortu dutenek egindako datu-faltsuketaren salaketa alegia.

Udalak, beraz, erreklamazioak aztertzeari ekin beharko dio eta txostena burutu eta gero, Eusko Jaurlaritzara bidali, Etxebizitza sailak azken erabakia har dezan.

Uztailaren azkenetarako prest egon daiteke zerrenda berria. Etxebizitzak urrirako bukatuta egongo dira eta ordurako behin betiko erabakia hartuta egon beharko da.

### Presoak espetxez aldatu

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak jakin arazi digunez, Felix Lopez, Enrike Letona eta Unai Parot espetxeratuak Alcala Mecoko presondegira eramán dituzte.

### Aukearen Udako Kanpaina

Aukearen udako kanpaina kirol era asko sartuko dira: waterpolo, judo, eskalada, tenisa, piraguismoa, etab. luzea. Kanpaina uztailaren 2an hasiko da eta plaza mugatuak izan gon dira.

### Gizabiden kargu aldaketak

Gizabidea fundazioko patronatuak egin zuen azken ohizko bileran Jesus María Herrasti izendatu zuten fundazioko lehendakari berri. Lehendakariorde postua berriz, Jabier Salaberriak beteko du. Batzorde eragilea, osterá, Gregorio Etxabe, Jose Luis Madinagoitia eta Jose Antoni Mendikutek osatuko dute.

### JAIOTZAK

Ornaza Atxa, *Jon*. Ekainaren 4an.  
Camona Alonso, *Maria Carmen*. 4an  
Rodriguez Poz, *Mireia*. Ekainaren 6an.  
Garcia Arnaiz, *Sheila*. 6an.

### EZKONTZAK

Domingo Ramos Andres & M. Victoria Zubizarreta Domiguez. Ekainaren 9an. Zibilez.  
Juan Zabaleta San Martin & M. Inmaculada Velez de Mendizabal Llodio. 7an. Zibilez.  
Adolfo Sanchez Expósito & Rosa Ana Garcia Ripa. 9an. Elizaz.

# AUSTIN ROVER



## AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

# SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



**KOLTEA**  
 Aranzabal Akobe  
 elektrogailuak

**IRRATI-  
 -IRATZARGAILUA**



**MELIA BIDAIK**

Etxe Aundi jatetxea



**AFARI BAT  
 BI LAGUNENTZAT**



**OKIENDO  
 KIROLAK  
 ZAPATILAK**



**Ikatz**  
 argazki etxea



**ARGAZKI MAKINA  
 AUTOMATIKOA**



**ASTE HONETAKO  
 SARITUAK**

**JOSU GARCIA**  
 Irrati-iratzargailua

**ANE BARRIOCANAL**  
 Bi lagunentzako afaria

**IMANOL MOLINA**  
 Kirol zapatilak

**Ma KARMEN LARRAÑAGA**  
 Argazki makina

Hileko sari handia



**KOLTEA**  
 Aranzabal Akobe

HI-FI Thomson ekipoa:  
 diskogailu,  
 anplifikadore, pletina  
 bikoitz, sintonizadore  
 eta hiru bidetako  
 pantailarekin

**Galdera:**

**Ze animaliaaren itxura du Santa Barbarako iturriak ?**

**Erantzuna:** .....

Izen-deiturak: .....

Helbidea: ..... Adina: ..... Tlfnoa: .....

**Garabi zerbitzua atzeratu**

Arrasateko Udalak, San Juanetarako jarri nahi zuen Garabi zerbitzua lanean. Udalaren azken osoko bilkuran, gaiaren inguruko hainbat xehetasun konartu ziren; besteak beste, garabiak eramandako autoak Gelmari alokatutako gunean gordetzea.

Gelma, ordea, haserre dago ingurugiroa kutsatzeagatik ezarri nahi dioten milioi bat pta.ko isunagatik, eta antza denez, gure hori ez uztea erabaki du.

**Euskara ikastaroak**

Arrasateko Udal Euskaltegiak zein Erdu Euskaltegiak, udako ikastaro trinkoak antolatu dituzte. Ikastaroak uztailean izango dira eta eguneko bost ordukoak. Izena emateko epea zabalik dago euskaltegi bietan.

**NANa berrizteko**

NANa lehenengoz eskuratzeko edota berrizteko txanda hartzeko zenbakiak ematen hasi da dagoeneko Arrasateko Udaltzaingoa.

NANa berrizten den ohizko bulegoetan, suertatu diren jende pila-tzeak nolabait ekiditeko, ekainaren 27 eta 28an, uztailaren 11, 12 eta 26an eta abuztuaren 8 eta 9an, Arrasatera tramite horiek egingo dituen talde bat etorriko da. NANak, Udaltzaingoarean oraingo bulegoetan berriztuko dira, 9etatik 11etara.



## Etxeak penagarri Erdiko Kalean

*Udaltzaingoa salaketa jaso, balkoia behera zetorrelako*

Erdiko kaleko 27, 29 eta 31. etxeak oso egoera txarrean daude.

Orain hamabost bat egun Arrasateko Udaltzaingoa salaketa jaso zen, balkoi zati batzuk kalera jausi zirelako. Udal zerbitzu teknikoak salatutako etxera hurbildu eta etxearen egoera txarraz jabetu ziren.

Joan den astean batzarra egin zen udaletxean etxeetako jabeak eta udal teknikoaren artean. Dirudienez, Udalak etxea kontserbatu eta konpontzea proposatu zien.

Etxeen jabeak osterara, ez daude

oso konforme Udalaren proposamenarekin. Antza denez, jabeek nahia-godo dute eraikuntzak behera bota eta zaharrak duen fatxadarekin berria eraiki, nahiz eta bertan bizi direnak ez izan eritzi berekoak.

Izan ere, 27an ez da inor bizi eta etxebean elektratresna tailerra dago. 29an, osterara, lau familia bizi dira errentan.

Arazoa konpontzeko hitz egiteko asko dago, baina ezingo dira gehiegi luzatu, etxearen egoerak ez luke jasango eta.



# IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORATZA

Magisterio Eskola honek zera jakin arazi du:

**1990-91 IKASTURTERAKO  
AURREINSKRIPZIO-EPEA ZABALIK DAGOELA**

Informazioa: Irakasle Eskola. Eskoriatza. Gipuzkoa

Tfnoa: 943 - 79 04 40

Ordutegia: 9-12 eta 15-18

## LOREA

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ

## LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA**

**IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

# Hizkuntz Perfilak onartu

**Udaleko lanpostuen %50.46a euskalduna izan behar**


Arrasateko Udalaren azken osoko bilkurak, besteak beste, Udaleko lanpostuen hizkuntz perfilak onartu zituen. Proposamenak, PNV, EE, PSOE eta EAren aldeko botoak izan zituen. HB oster, abstenitu egin zen.

1986an, Eusko Jaurlaritzak, lurralde autonomoko administrazio publikoetan euskararen erabilpena arautzen duen dekretua onartu zuen. Dekretua onartu ondoren, Jaurlaritzak, administrazio publikoetan inkesta egin zuen, lanpostuen eginkizunak zehatz jakiteko eta lanpostuei zegozkien hizkuntz perfilak arautzeko. Inkestaren emaitzak eskuarte, Eusko Jaurlaritzak txostena egin zuen, administrazio guztietako lanpostu bakoitzaren hizkuntz perfila azalduz.

Aipatutako txostena, joan den abenduan jaso zuen Udalak. Udalean azken urteetan, euskararen erabilpena areagotu egin dela eta orain gutxi euskararen erabilpena bultzatzeko hitzarmana sinatu dela kontuan izanda, zenbait zuzenketa egin ziren.

Zuzenketak Jaurlaritzak onartu ondoren, azken osoko bilkuran Udalak hizkuntz profilei behin betiko onspena eman zien.

Onartutako hizkuntz perfilen ara-



bera, Udaletxeko lanpostu batzuetan, %50.46an hain zuzen, euskara jakitea derrigorrezkoa da. Gainontzeko lanpostuetan, derrigorrezkoa ez bada ere, kontuan hartzekoa izango da. Arrasateko Udaletxean jendearekin harremana duten lanpostuetan izango da euskara jakitea derrigorra. Era berean, erantzunkizun handiko lanpostuetan euskara jakitea derrigorrezkoa izango da.

Langileek, 1994eko urtarrilerako euskaldunduta egon beharko dute.


## II. Arte Hamabostaldia

Arrasateko Udaleko Kultura Batzordeak onartu berri du II. Arte Hamabostaldiko egitasmoa. Iazko ekitaldian, herriko artistek bakarrik egin bazuten lan, aurten kanpotarrak ekarri nahi dira, eurek lantzen dituzten alorretan, ideia berriak ekarriko dituztelakoan.

Aurtengo ekitaldian parte hartuko duten artistek *Arrasate: bere inguru natural eta urbanoa* gaia jorratu beharko dute.

Hamabostaldian parte hartzeko deialdia Euskal Herriko nahiz estatuko hainbat artistari luzatuko zaio. Aurkeztutako proiektuen artean bost onartuko dira, Hamabostaldian garatzeko.

Hamabostaldia noiz egingo den zehaztu gabe badago ere, irailaren azken hamabostaldian edo urriko lehenengoan izatea espero da.




### AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea  
Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

**Klaseak**  
**Itzulpenak**  
**Udako ikastaroak**  
**Bidaiak**  
**Elkartrukeak**  
**Udalekuak**  
**Prestakuntza**

*"Hizkuntza bat gehiago,  
muga bat gutxiago"*

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE



Kontzesifno 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



Orain 25 urte, San Viator eskolan. Batxillergoaren 4. maila ikasten ari zirela, goiko argazkia atera zuten Santa Barbaran. Berrogeitasei ziren. Larunbatean berriro bildu ziren eta batzuk falta ziren arren, beste argazki hau atera zuten leku berean eta orduko tokiak errespetatuz. Bizibidez, batzuk enpresa gizonak, langileak besteak, goardia zibil bat, zientzilari bat eta fraile bat, besteak beste. Denetarik, Jainkoaren ortuan bezala!

EL PAIS

# ESTILLO

**GENTE**  
CRISTINA LLISO  
ABRAHAM GARCÍA

**BARCELONA**  
LA CIUDAD MÁGICA  
DE MARISCAL

**HOLLYWOOD**  
CINCO ESTRELLAS  
CON EL 'LOOK'  
DE LOS CINCUENTA

**VERANO**  
CUIDADO CON EL PELO

**DECORACIÓN**  
UNA CASA  
CON HISTORIA

## Portero de moda

Andoni Zubizarreta,  
del campo al vestuario

FOTOGRAFÍA: MARIANO / EL COMERCIO 10 DE JUNIO DE 1994, ANO 95

Munduko Futbol Txapelketa gori-gori dagoenean, nola utzi bada, gure ordezkari bakarra aipatu barik? Badirudi **Andoni Zubizarreta** atezain atxabaltarrak noizbehinka *El País* egunkarian zutabetxoren bat edo beste idazten duela, ordaintzen diotena Bartzelonako S. Juan de Dios eritexearen kontu korrontean sartzen omen delarik. Guzti hori gutxi balitz, gainera, hasia zaigu Andoni modelo lanetan ere. Estiloric ez zaio falta, ez horixe!

# LASAGABASTER

## Jantzidenda

*Bertan izango duzu beti modako  
gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97





## izen propioak

◀ *Saski Naski* lehiaketaren barruan, hileroko sari handia emateko orduan *Melia Bidaiak*-en txanda izan genuen honakoan. Argazkian, pozik agertzen da *Ainhoa Lasaga*, Ibizara astebeteko bidaia irabazi ondoren. Antza denez, ekainaren 24etik uztailaren 1era joango zaigu Ainhoa bertara, ama aldamenean hartuta. Ondo ibili!

■ *Jesus Mari Herrasti*, 43, aretxabaletarra, Gizabidea fundazioko lehendakari berria, karguan Alfonso Gorroñigoitia ordezkatuz. Jesus Mari injineru teknikoa da, EPPn eta Donostian ikasia. Gaur egun Fagor taldeko lehendakaria da. Copreciko Batzorde Zuzentzaileko buru, Ularcoko pertsonal zuzendaria eta, 1982tik aurrera Arrasate kooperatibako gerentea, besteak beste. Bi legealditan Aretxabaletako alkatea izan zen, EAJ alderdiaren zerrendetan.

■ *Igor Arenaza*, 16, aretxabaletarra, Athletic futbol taldeak fitxatu du. Igorrek Dorletako Ama ikastolan 2. REM ikasten dihardu. Almen eta UDA taldeetan jokatu izan du. Datorren urtean ziuurrenik Deriora joango da ikastera.

■ *Mikel Reguero*, 32, bilbotarra, Arrasateko Udalak Udala auzoko Ingurugiro Eskolaren plangintza egiteko kotratatu du. Mikel biologoa da. Ingurugiroari buruzko hitzaldi eta ikastaro ugari eman izan ditu.

Sari bereziaz gain, ▶ hor eman ziren ere ohizko laurak. Argazkian, bi irabazle ikusten ditugu. *Josu Aranguren*ek Ikatz-en argazki makina eraman zuen; eta argazkian agertzen den *Maitane Zubizarretaren* ahizpak, Leirek irabazi zituen Okendo Kirolak-eko zapatillak. Azaltzen ez diren arren, *Imanol Aranburu*rentzat izan zen Etxe Aundiko afaria, eta Aranzabalen irratizargailua, osera, *Yesika Martin*entzat.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea 47, beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

## ITSASKI

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE

# Alecoop: joanak dira hogeitabost urte

## Lau lagunek bultzatutako enpresan, gaur egun 615 langile

1965. urtea izango zen. On Jose Maria Arizmendiarrietaren aholkuari jarraituz, Eskola Politeknikoan ikasten ziharduten lau gaztek lanari ekin zioten.

DIE izenarekin ezagutzen zen orduan enpresa jaio berria.

1966ko apirila. Estatutuak onartu, eta DIE hartatik Alecoop Elkarte Kooperatiboa sortu zuten.

Bolada onak, eta ez hain onak ezagutu dituzte ordutik. Dena den, 25. urteurrena bete duenean, puntaren puntan agertzen zaigu Alecoop.

egoitza gastuak, bidaiak, etab. Eta aipatu behar ere, bazkide ikasle hauek, botu guztien heren batez direla partaide gestio organoetan.

Horrez gain, enpresaren irabazien zati bat dagokie.

### Enpresak eta ikastetxeak

Ezin aipatu barik utzi, urteetan zehar gaur Fagor taldea denak eskaini diola Alecoop laguntza handiena.

Enpresak beti izan ditu harreman estuak kooperatiba honetan sartzeko aukera duten ikastetxeekin. Horrela, bazkide ikasleen %70a Eskola Politeknikokoak dira; %20 ETEOkoak, eta %10a Eskoriatzako Irakasle Eskolak.

Azken boladan, gainera, Lenitz Lanbide Heziketarako ikastetxetik ikasleak ekartzeari ekin diote.

### Produktua

Alecoopen bi produktu mota lantzen ditu gaur egun.

Alde batetik, aurrefabrikatutako instalazio elektrikoak. Bezeroen beharrik kontuan izanda, kable serie handiak egin eta montatu: gama zuriaren sektorean, automobiletan, etab.

Eta bestetik, ekipamentu didaktikoa. Hezkuntz praktiketarako entrenamendu aparatuak dira, honako esparruetara heltzen direlarik: Automatismoa, Elektronika industrialia, Auto-



Bi produktu mota: aurrefabrikatutako instalazio elektrikoak, eta ekipamendu didaktikoa

Alecoopen sorrera, mugimendu kooperatiboaren barruan kokatu behar da. Esperientzia honen sortzaile eta animatzaile, Jose Maria Arizmendiarririeta apaiza izan genuen.

Alecoop, hezkuntza aukera ezberdinak sozializatzeko saioa da; eta baita lanaren bidez, ikasleak pertsonal eta sozialki garatzeko saioa ere. Ikaslea lan munduan sartzeko da, eta etorkizuneari, enpresa munduan parte hartzeko heziketa osagarria ematen zaio.

### Elkartearen arauketa

Gaur egun, Alecoop 1977ko ekainean onartutako estatutu sozialek arautzen dute. Horrela, bi bazkide mota aurkitzen ditugu bertan.

Alde batetik, langile hutsak. Egundako osoko langileak dira, guztira berrogei. Hauen eginkizuna, kooperatibaren jarraipena eta garapena ziurtatzea da. Bazkide hauentzako indarrean dauden

arauak, Fagor taldearen bazkide direnen antzekoak dira.

Bestalde, ikasleak ditugu, gaur egun 575 inguru. Alecoopen onartutako Lanbide Heziketarako zentruetan, unibertsitari eskola eta antzekoetan matrikulatutako ikasleak dira. Egundako erdia ikasten, eta beste erdia lanean ematen dute. Bazkide direnez, hiru hilabetetako lan aurrerakinei dagokien

**Bazkide berrien aukeraketa egitean, besteak beste hautagaiaren familiarren egoera ekonomikoa, eta ikasketen egoera hartzen dira kontuan.**

diru-kopurua jarri behar dute ekarpen gisa. Diru hau, lehenengo sei hilabeteetan hartzen zaio ikasleari, hileroko nominatik. Jasotzen duten soldataren bidez, ikasketen inguruko gastuak ordaindu ahal ditzakete: matrikula,

matika eta Robotika, Mikroelektronika, Informatika, Makina erraeminta, Energia alternatiboak, etab.

Irakaskuntza ertainen lehen ziklorako materiale didaktikoa ere egiten dute.

**Bezeroak eta inbertsioak**

Alecoop-en bezeroei dagokienez, aurrefabrikatutako instalazio elektrikoetan Fagor, Balay, Zanussi, etab. aipatu behar. Didaktika arloan, berriz, eskolak eta administrazioa.

Estatu mailan lehen postuan egoiteaz gain, batez ere SESB, Kuba eta Argentinara esportatzen dute

Biharko egunari begira, ekipamendu didaktikoen arloa sendotu nahi dute, kableatuari ez bait diote etorkizun handiegirik ikusten.

Eta bukatu, inbertsioen arloarekin bukatuko dugu. Aurten, 151 milioi inguru inbertituko ditu enpresak. Zati handiena makinaria berrian, eta beste atal garrantzitsu bat, laster Madrilen zabalduko duten delegazioan.



575 ikasle inguru aritu dira egun erdiz lanean

## 25 urteko historiaren protagonistak

1

1965. urtea. On Jose Mariak burua berotu, eta Eskola Politeknikoko lau ikaslek DIE enpresa abiarazi zuten. Ikasle horiek Juan Rementería, Joxe Ozerinjauregi, Gabriel Añorga eta Bonifazio Aldazabal izan genituen.

Hasiera gogorra: lehenengo zazpi hilabeteetan xoxik ere ez lan gogorraren truke. Eskolak berak lagundu zien sortzen, beharrezkoak ziren giza eta material baliabideak euren eskuetan jarritz. Lehenengo urratsak Eskola Politeknikoaren etxabetan eman zituzten. Hasierako lanak, galderagintza arina, etxetako instalazio elektrikoak, eta telebisten muntaila eta konponketak izan ziren.

Eta lehenengo nagusia, Juan Carlos Ormazabal.

1966ko apirila. Estatutuak onartu, eta DIE zenatik Alecoop sortu zuten, lan elkartzeko kooperatiba gisara eratutako enpresa. Helburuak, Eskolako ikasketen autofinantziaketa lortu, eta kooperatiben lan mundua berrituz ezagutzeari; hau da, nor bere lanbidean trebatzea, lana eta ikasketak elkartuz.

1967tik 72ra, Joxe Mari Berezibar izan genuen enpresa jaio berriaren gerentea.

1970. urtean lantegi berria eraikitzeari ekin zioten, produkzioaren esparrua zabaldu asmotan: tornuentzako arrastak, aparatu didaktikoak, etab.

Hamarkada hasiera garrantza tokatu zitzaizkien, ordea. Grebak, epaiketak. Kooperatibismoaren sistema zalan-tzan jarri, eta eztabaida gogorren ondoren, 72an bazkideatariko batzuk alde egin zuten.

Eta ez hori bakarrik. Garai hartan ere, LKAK, Alecopi etorkizunik ikusten ez ziola eta, abala eskatu zuen beharrezkoak ziren 26 milioi pta.k utzi aurretik.

Berebiziko garrantzia izan zuten orduan Laurentino Gomez eta Joxe Mari Ugartek. ULGORrekin harremanei ekin, eta LKAK eskatutako abala lortu zuten. J. R. Elortzak ere makina bat izerdi eman zituen egun haietan.

Oroimenean galdutako arazoak ditugu, ordea. 1972an birmoldaketa egin ondoren, Joxe Mari Ugarte eta Laurentino Gomezek gerentzia bateratuari ekin zioten. Gero, 75etik 84era Laurentinok bakarka eraman zuen ardura, eta orduetik gaur arte, Joxe Antonio Ilegik.

Beste askoren artean, eurak ditugu 25 urte bete dituen historia honen protagonistak, izen propioak. Eurak dira gora eta gora egin duen enpresaren bihotza.

**AUTO  
ESKOLA**

**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

# XVIII. udako euskal unibertsitatea

IRUÑEA: Uztailak 16 - 28

## INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:

**Baiona:** ZABAL LIBURUDENDA, Pannecau, 25; tf: 59254390  
**Bilbo:** UEU, General Concha, 25-6. ; tf: 4317145  
**Donostia:** ELHUYAR, Urbieta 7, 3.; tf: 429945  
**Gasteiz:** AXULAR LIBURUDENDA, Arka 11; tf: 132506  
**Iruñea:** AUZOLAN LIBURUDENDA. S. Gregorio, 3; tf:223614  
XALBADOR LIBURUDENDA, Comedias, 14; tf: 224167

**Matrikula-epea:** Ekainak 1-29

## ARTEA ETA KOMUNIKAZIOA

**ANTZERKILARITZA** (Uzt.16/27) Gorputz-adierazpena eta kreatibitatea / Interpretazioa / Irakurketa dramatiko: silabizazioa eta enfatizazioa

**MUSIKA** (Uzt. 16/27) Harmonia. Sarrera eta ariketak herri-kantak harmonizatuz / Oinarrizko eta maila ertaineko txalaparta-joerak (1) Musika Eskolan (2)

## GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK

**EKONOMIA** (Uzt. 23/27) Ekialdeko ekonomien aldaketak / Emakumea eta Ekonomia

**FILOSOFIA** (Uzt. 16/20) Filosofia eta Euskara (Klasikoen itzulpena dela eta)

**HISTORIA** (Uzt. 16/27) Geografia / Historiaurrea: terminologi arazoak euskaraz eta irteera(1) / Euskal Herriko industrializazioa: ekonomia, gizartea, mentalitatea (2)

**KAZETARITZA** (Uzt. 16/20) Joera berriak telebista-kazetaritzan, Egunkarien diseinua Euskal Herrian, kazetari-hizkuntzako joerak, manipulazio informatiboa....

**PEDAGOGIA** (Uzt.16/20) Euskal Eskola Publikoa, euskal kulturaren garapenaren itzalean

**PSIKOLOGIA** (Uzt. 16/20) Erotismoa, desira, amodioa, sexualitatea

**SOZIOLOGIA** (Uzt. 16/27) Soziolinguistika: Herrietako Hizkuntz plangintza (1) / Soziologia: Dokumentazioaren tratamendu informatizatua / Hitzaldi desberdinak (2)

**ZUZENBIDEA** (Uzt. 23/27) Manipulazio genetikoak / Haurrak eta legeria / Lan-zuzenbidea / Prozesu bitxiaren azterketa

## HIZKUNTZALARITZA

**GLOTODIDAKTIKA** (Uzt. 16/27) Susperketa soziokulturala: planteamendu orokorrak, ikuspegi metodologikoak,.. (1) / Ebaluaketa-eredu diferenteen azterketarako mintegia (2)

**LINGUISTIKA** (Uzt. 16/27) Fonologia / Semantika / Sintaxia / Dialektologia

**LITERATURA** (Uzt. 23/27) Narratibari buruzko kongresua / Ponentzia, komunikazio,..

**ITZULPENGINTZA** (Uzt. 16/27) Idazkera- eta itzulpen-ikastaldia: hizkuntz-eredua, testu-azterketa, euskara "egokia"

## NATUR ZIENTZIAK

**OSASUNA** (Uzt. 23/27) Lehen laguntzak / Beste zenbait hitzaldi

**NATUR ZIENTZIAK** (Uzt. 16/27) Geologia (1) / Biologia (2)

## ZIENTZIA ETA TEKNIKA

**FISIKA** (Uzt. 16/27) Ikergailuen erakusketak edo lan praktikoak / Termodinamikako kurtsoa / Hitzaldi bitxiak

**INFORMATIKA** (Uzt. 16/20) Aplikazioen aurkezpena / Informatikaren bide berriak / Hezkuntz Softwarearen erakusketa

**KIMIKA** (Uzt.23/27) Perfumegintza / Kandelagintza / Konpositeak

**LANEKO EUSKARA** (Uzt. 16/27) Udal administraziozako langileentzako alfabetatze teknikoak

**MATEMATIKA** (Uzt. 16/20) Hitzaldi desberdinak / Matematika-irakasleentzako "Matematika Hiztegia lantzen" mintegia / Jolas matematikoak: hitzaldiak eta praktikak.


## BABESLE NAGUSIAK:

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saila,  
Nafarroako Gobernuak eta Barne-Departamentua

# "Unibertsitateetan, irakasle txar larregi dago"

Jose Antonio Markaide

Jose Antoni Markaide, Elgetan jaiotako arrasatearra dugu. 1969an, Arrasatetik alde egin zuen fisika ikasteko eta harez gero, gutxitan itzuli da. Astrofisika galetan ikertzailea, Zaragozako Unibertsitateko irakaslea, normalean Granadako "Instituto de Astrofísica de Andalucía" zentruan lan egiten du. Edozein modutan, urtean behin edo birritan, Harvardera, Bonn-eko Max Planit Institutura, Boloniara zein Massachussets-eko Institutu Teknologikora joan behar izaten du.



Jose Antonio Markaide

— *Nolatan heltzen da Arrasatear bat NASAn lan egitera?*

— Lehenik argitu, nik ez dudala zuzenean NASAn lan egiten, edo beste era batera esanez, ez dut NASAk plan-tila osatzen. Nik Nasarentzat lehen zein gaur egun, aholkulari lanak egiten ditut.

— *Beraz, zer behar da maila horretan lanean aritzeko?*

— Arrasaten izan daitezkeen baino muga zabalagoak izan behar dira. Horretarako lan asko egin behar da eta beharbada pertsona egokiak ezagutu. Niri muga horiek Arrasatetik irten nintzenean zabaldu zitzaizkidan. Eskoziako fundazio batek beka eman zidan Edimburgon ikasteko. Han benetako ikertzaileekin egin nuen topo, benetako ikerkuntza zentruetan nola lan egiten den ikusi nuen. Arrasaten, gaur egun, Ikerlan ikerketa zentrua dago, nik alde egin nuenean, ostera, oso ikerketa gutxi egiten zen. Zaila zen jendea ikerketen garrantziaz jabetzea. Gogoan dut Arizmen-  
diarrietarekin ere hitzegin nuela. Nik ikerkuntzan sinesten nuen eta horretan hasi nintzen; berak aldiz, peritoen eta teknikoaren mentalitatea zuen.

— *Nola ikusten duzu Euskal Herrian zientziaren egoera gaur egun?*

— Beste leku batzuekin parekatuz gero, teknika eta produkzioaren garapena, zientziarena baino handiagoa dela esango nuke.

Ez dut uste Euskal Herriak behar duen Unibertsitatea duenik. Nire ustez, orohar Estatuko unibertsitate gehienetan irakasle txar larregi dago, ganorazko ikertzaile eta irakasleak ez diren irakasle gehiegi. Euskal Herrikoa, horrenbeste gauza egiteko ekimena duen gizartea izanik, zergatik ez ote da zientzia garatzen benetan hasi, askotan galdetu izan diot neure buruari. Nik uste kalitatea kantitatea baino hobe dela Euskal Herrian, fakultate asko dago, jende asko ari da ikasten, baina azkenean, gizartearen kalita-

ona egin daitekeenik, ikerketarik gabe. Ikertzaileek nire eritziz entusiasmo handiagoa dute. Gizartea norantz abiatu behar den eta mugak zeintzuk izan behar diren badakite; irakatsi besterik ez duenak egiten, ez.

— *Zientzia eta honen aplikazioak bereiz daitezke?*

— Bai, zientzia gauza bat da eta zientzia nork hartu onerako edo txarrerako izan daiteke. Baina zientzia "per se" ez da ez txarra, ez ona. Gauza batez ziur nago, zientzia hutsa ez egotea oso txarra da. Jendea ezjakina egiten

berak ikerketarik ez egitean, atzerrian erosi behar duelako, horrek ekonomia txirotu egiten du.

— *Ikerkuntza beharrezkoa dela esan genezake, baina zertarako?*

— Bi gauza dira. Ikertzen dena gero zertarako erabiltzen den, arazo politikoa da. Horrenbeste diru politikan eta horren gutxi zientzian zergatik gastatzen den jakin behar du kaleko gizonak. Kaleko gizonak, politikoei egiten dutenaren kontrola izan beharko luke.

— *Zientzilariek badute beren ikerketen emaitzen kontrola?*

— Arazoa ikerketa genetikotik planteatu daiteke sakon, zientziaz gaindiko arazoak sortarazten dituelako, arazo etikoak sortzen ditu. Zientzilariei ez ikertzeko eskatzea errakuntza litzateke, ikertu beti egin behar delako. Gizarteak arazo etikoak ganoraz arautu behar ditu. Debekuak, kanpoan dagoen jendeari ikertzen uzten dio eta garbi ikertzen den lekuetan ikerkuntza galeratzen du. Horrek ondorio txarrak ekartzen ditu, faszismoa ekartzen du.

**"Ikerketa galerazteak, ondorio txarrak dakartza, faszismoa dakar"**

tea da hobetu behar dena. Dozena bat pertsonak, benetako ikerkuntza eginez gero, gizartearegan eragin handiago izaten du askoren lan mediokreak baino.

— *Ikerketak beraz, garrantzi handia du?*

— Unibertsitatean ikerkuntzak, dozentziak besteko garrantzia edo handiagoa du. Ez dut uste irakaskuntza

duelako da kaltegarria, fanatikoagoa eta azkenean ekonomikoki ere txiroagoa.

XX. mendea bukatzean dagoenean, zientziak kultura osatzen du. Hezkuntza zientifikoa zein humanoa izan ezean, ez dut uste gaurko gizon modernoak ganorazko hezkuntza izango duenik. Zientziarik ez egotea gizartearentzat kaltegarria da, nor-

## Eskubaloi zuzendaritzak dimititu

### Uztailaren 5a arte hautagai berriak aurkezteko epea

Arrasate Kirolak eskubaloi taldeko zuzendaritza osatzen duten zazpi lagunek ohar bat kaleratu zuten astelehenean, karguak bertan behera uztea erabaki dutela aditzera emanenez.

Besteak beste, honako pertsona hauek izan ditugu eskubaloi taldearen arduradunak azken urteotan: J.A. Aranburuzabala, A. Diez, J.M. Herrero, O. Oñaederra, A. Azkarate, A. Garay eta R. Madinabeitia.

Batzuk 16 urte eman dituzte lan honetan; eta guztiek ere, egoera politoan uzten dute taldea: ekonomikoki ondo, eta kirol-emaitei dago-kienez ederto.

Baina, urte asko izan dira, ordu asko. Arrazoi pertsonal eta profesionalak medio, atsedena hartzea erabaki dute.

Hutsune handi hau betetzeko, hautagai berriak aurkezteko epea zabaltzen da orain; gauzak horrela,



Zazpi zuzendarietarik bost

uztailaren 5ean, taldearen batzar orokorrean erabakiko dute nortzuk hartuko duten taldearen kargu.

Joan direnei, esker mila; eta laster helduko direnei, animo beroak!

### Euskadiko selekzioa

Datorren astelehenean, ekainak 18, 'Euskadiko futbol selekzioa' gaiaren inguruko mahaingurua egingo da Monterron Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan.

Partehartzaileak Iñaxio Kortabarría, Jabier Exposito, Iñaki Elortza kazetaria, eta Errealeko jokalaria den Xabier Bengoetxea.

Moderatzailea Pello Bengoetxea, Mondra taldearen entrenatzailea.

### Jose Caballero hil

Igande goizean hil egin zen Jose Caballero Garcia, 46 urteko zikloturista arrasatearra.

Jose Caballerok, Andoaingo nazioarteko zikloturista txapelketan parte hartzen ziharduen, Tolosako Benta Aundi auzoan kamioi batek harrapatu zuenean. Dolumiñak haren senideei!

### Halterofilia txapelketa

Larunbatean Kiroldegian burutuko dena, goizeko 11etan hasita. Ikuskizun bitxia, beraz, bertara hurbiltzen direnentzat.



### Puentegeñil txapeldun

Larunbat eguerdian hasi, eta igande eguerdira arte luzatu zen Musakolako kiroldegian *Futbito*ko 24 orduen bigarren edizioa.

Aurrez-aurre, 27 talde.

Gaupasa xelebrearen ondoren, Igande eguerdian jokatu-tako finalera *Puentegeñil Club de Polo* eta *Yutha Boys* taldeak heldu ziren.

Hobeto jokatu zuten *Puentegeñilekoek*, eta erraz nagusitu ziren markagailuan: 9 eta 2.

Argazkian ikusten dituzue, irabazitako kopa, txanpan botila eta bildotsaz. On egin daiela!

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

Erdiko kale. 79 19 37

**LEA**

Ferrerías. 79 87 62

**Osorik  
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

podiuma

**Iñaki Korta, pilota geurea delako**

Iñakik hamazazpi urte ditu, eta joanak zaizkio bederatzi pilotan jokatzeari ekin zionetik. "Mauri Zubillagarekin hasi nintzen, Ikastolara partiduak antolatu eta jolasteko mutiko bila etorri zenean. Aitak ere asko animatu izan nau beti, eta gaur arte aurrera egin dut".


Atsegin duela, gero, kirol hau. "Zergatik? Pilota geurea delako, euskaldun guztiona".

Nahiago du bikoteka jokatu, bakarka baino. "Bakarka ondo jokatzeke prestaketa berezia behar da. Nik nahiago dut lagunarekin jokatu, taldean nork bere lana betetzen ikasi".

Iñaki aurrelaria dugu, beti ere tantoak bukatzen, errematatzen saiatzen den jokalaria. "Bai, agian pilotaren alde ikusgarriena burutzen dugu, baina atzekaldean ondo eusten dakien lagunik gabeko aurrelaria ez doa inora".

Kontuak kontu, antza denez Iñakik dagoeneko aurkitu du bere atzelaria. "Azken bospasei urteotan Markosekin jokatu izan dut, eta ederto konpontzen gara biok".

Bai horixe. Horren lekuko, gazte mailan irabazi berria duten Deba Arroa txapelketa. "Sari ederra izan da guretzat, eta baita Arrasaten pilotaren inguruan ari den jende guztiarentzat. Duela bi urte, gainera, haur mailako txapeldun izan ginen Deba Arroan ere, eta beraz, badirudi ondo ari garela lanean".



Horren pilotari handiak jaitzen ikusi duen Arrasaten, etorkizuna ere bide onetik datorrela uste du Iñakik. "Gaur egun ehun eta piku neska-mutiko ari gara entrenatzen. Askok bertan behera utziko dute, baina noski, hainbeste jenderen artean ziur kalitatea ere agertuko dela".

Kalitate horri eusteko, ordea, Iturripeko instalazioak lotsagarriak direla gero. "Gezurra ematen du Arrasate bezalako herrian, hain egoera makalean dagoen frontoia erabili behar izatea. Kanpoan jokatzerira iriteten garen bakoitzean, pilotaleku izugarri politak eskaintzen dizkigute. Kanpotarrak hona datozenean, oster, lotsa ematen du pilotari horiek Iturripera eramateak. Eskerrak Ferixalekuko eraikuntzari baietza eman diotela. Nere ustez merezi duen esfortzua da, azken finean frontoi berriarekin pilotak bultzada galanta jasoko duelako".

Ferixalekuko pilotalekua, merezi duen esfortzua. Zergatik? Pilota geurea delako. Ze demontre!

■ **Larunbatean, rugbya**

Larunbat honetan, ekainak 16, rugby partidu ikaragarria ikusteko aukera izango dugu Atxabalpen, arratsaldeko 4.30etan. Aurrez aurre, Arrasateko beteranoak eta gaur egungo taldea.

Apusturik?

■ **Judo Txapelketa**

Arrasateko Judo taldeak antolatuta, Herriarteko Judo Txapelketa eratuko da Musakolako Kiroldegian, hamazazpi urtetik beherakoen kategorian. Goizeko 10etan hasi, eta ordubata arte.

■ **Pilota finalak**

Pilotari dagokionez, gogoratu larunbat goizeko 10.30etan hasiko direla Iturripen XI. San Juan Esku-pilota Txapelketaren finalak. Benjamin, alebin, haur eta gazte mailak jokatuko dira, eta antza denez, baita nesken txapelketa ere.

■ **Asier Guenetxea**

Aretxabaletako txirrindulariak Gipuzkoako afizionatu txapelketa eskuratu zuen igandean, Ataunen jokatutako proban. Dagoeneko, aurre irabazten duen laugarren lasterketa izan genuen igandekoa. Zorionak, eta eutsi goiari!

■ **Agur, Pedrusko**

Pedrusko taldearen zuzendari-tzak hartutako erabakiaren ondorioz, antza denez datorren denboralditik aurrera izenez aldatuko du taldeak. Gaur arte Pedrusko izan duguna, San Andres Futbol Taldea bihurtuko da etorkizunean. Arrazoa, seriotasun kutsua ekarri nahi dutela.

**K**abia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



Eskaiola, pintura eta kortxo-zoko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75

ARRASATE

## Komunikabideetako bakardadeaz

Osorik izenburu ponpoxoa irten zait gaurkoan, mea culpa, baina ez dut esan nahi nuena adierazteko modu arruntagorik aurkitu. Barka. Arazoa berez arrunta da. Eta maiz izan da aipatua kazetari nahiz bestelako idazleen aldetik. Hain zuzen, hitzak elkar lotuaz nolabaiteko mezu edo ideiak luzatzen dihardutenek —edo zuen baimenarekin, dihardugunok— ez dute —dugu— erantzun handirik jasotzen normalean. Horrela, komunikazioa norabide bakar batean sortzen da, mezua edo ideia jaurtitzeko duenarengandik irakurri edo entzuten duenarengana. Eta komunikazio-mota hori ezin uka izan daitezkeenetan pobreena dela, antzuen.

Nik behintzat urte t'erdia inguru daramat hamabostean behin zerbait komunikatzeko ahaleginetan eta denbora guzti horren bueltan ez dakit

ia hemen luzatu ditudanak inorentzat interesik izan duten. Eta hau ez litzaiteke kexua, sentitzen dudana komunikatzeko ahalegin berria baizik.

Sarrera luze honen zergatia ATBko Musikantoi saioarekin lotu dago. Izan ere, badaramagu ia lau hilabete programa hori egiten, dagoeneko dozena pasa saio emanak ditugu, eta jada nik goian aipaturiko arazoa sentitzen hasiak gara, alegia, han egiten dugunak batere ikuslerik ba ote duen, ikuslerik egonez gero saioak interesgarriak ote zaizkien, edota saioa hobetzeko ideiarik ba ote duten, etab.

Halere, oraingoan ez dugu zalantzarekin gelditu nahi. Horregatik asmatzen hasiak gara ikusle posibleak gurekin harremanetan jartzeko moduak, harreman horien bidez jakin dezagun zein musika-mota duten

gustokoen, zer erantsi edo kenduko lioketen saioari, edo zein bide proposatzen diguten beraien partaidetza finkoa eta iraunkorra izan dadin.

Izan ere, herri-telebistek telebista handiekiko abantailarik izango badute, abantaila hori ez da egongo ez bitarteko teknikoetan, ez eta ere bertan lan egiten dugunon profesionaltasunean. Alde horietatik beti izango dira kaskarragoak herri-telebistak. Abantaila nonbait aurkitzekotan hurbiltasunean egongo da, hurbileko gaien erabileran eta bertan parte hartzeko posibilitatean.

Gure partetik erronka hori hartu dugu hurrengo hilabeteetako gai nagusitzat. Zuen eta gure arteko bigarren erdia egiteko prest gauzka-zue. Beste erdia egin dezazuela eskatzen dizuegu zinez.

Mikel Irizar



## HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE  
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61  
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Gojain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua  
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53  
Telefax: 45 54 74 AGURAIN



# UDA IKASTAROA

## 90

Non: **Arrasateko Udal Euskaltegian**

Noiz: **Uztailaren 2tik 27ra, 5 ordu goizez**


Mailak: **Guztiak**

Matrikulaldia: **Ekainaren 11tik zabalik**

Prezioa: **5.000 pta. (beka sistema ere badugu)**

Arimazuri 2, Tfnoa: 79 70 77 Arrasate

**16 urtetik gorakoentzat**

UDAL  **ARRASATEKO  
EUSKALTEGIA**

# Heziketa

**N**ormalean heziketa eskolarekin lotzen dugu: haurren heziketaren erantzunkizun osoa eskolari atxikitzen diogu.

Halere, heziketa eskola baino zerbait gehiago da. Eskola ez da haurren hezitzaile bakarra. "Heziketak hainbat praktika sozial hartzen du bere barne, eta praktika sozial hauen bidez, kulturalki antolatutako esperientzia kolektiboa asimilatzen laguntzen diete giza-taldeek beren kideei eta, aldi berean, kultura-sortzaile eta aldatzaile izaten" (C. Coll)

Beraz, heziketaren helburua zera da: gizaki aktiboak sortzea eta bizi direneko gizartearen bizitzan parte-hartzeko gaitasuna lantzea. Horretarako, heziketak beharrezko tresnak eskaintzen dizkie haurrei, hauen artean ezagupenak, baliabideak eta jarrerak sartzen direlarik. Ispilu horretan begiratu behar dio bere buruari edozein

heziketa-erakundek eta, ondorioz, aldakuntza egokiak burutu behar.

Egile ezberdinek eta maila ezberdinetan partehartzen dute lan honetan. Familia -ez dugu ahaztu behar- da lehen eskola, eta amaitzen ez dena. Eskolak, bere aldetik, eginkizun garrantzitsua betetzen du eta bertan bere denborarik gehiena pasatzen du haurrak. Kalea, auzoa, herria eta komunikabideak (telebista,...) ere hezitzaileak dira, haurrengan baloreak sortzen bait dituzte -agian beti ez positiboak-, edukia ematen diete beraien jolasei, ikaserazi egiten diete, konturatu gabe ere.

Maila ezberdinetan, baina eskolatik at haurrak beraietan partehartzeko garrantzitsuak diren zenbait erakunde aipatu behar da: besteak beste, hizkuntza ikasteko taldeak; soinketa, kirola, dantza, musika-taldeak; katekesi taldeak; ludotekak, ai-

sialdi edo denbora libre-taldeak -hauen artean batzuek noizean behin, zenbait jaiegunetan, hartzen dituzte haurrak; beste batzuek urtean zehar burutzen dute beren iharduera eta kanpamentu batekin edo ekintza garrantzitsu batekin bukatzen dira-; udalekuak,... Denak dira hezitzaileak; denak haurraren inguruan antolatzen dira.

Aktibitate guzti hauetan, erakunde guzti hauetan, haurrari marko bat eskaintzen zaio gaitasunak garatzeko, baloreak bizitzeko, interesak eta hobbyak lantzeko. Horiek ere giza-taldeak dira eta gizartearen esperientzia kolektiboa asimilatzen laguntzen diete berorietan partehartzen dutenei eta, aldi berean, bizi diren inguruan partehartzeko eta kide aktiboak izateko bide dira.

*Klarion taldea.*



## ARRASATEko UDALA

### Euskaltegian 1990-91 euskara irakasteko irakasleak hartzeko deialdia

*Eskatzen da:*

- EGA
- Magisterio, Unibertsitateko lizentziatu titulua edo diploma edo HABEko habilitazio froga gainditua izatea.

Eskabideak egiteko epea 1990ko Ekainaren 22an bukatzen da. Azterketa ekainaren 27an, goizeko 9.00etan, Udal Euskaltegian. Argibide gehiago nahi duenak jo beza Arrasateko Udaletxera.

## Alkohola (VI)

**O**rain arte esandako guztiaren ondorioz, irakurleren batek galdetuko du ea ezer onik ba ote duen alkoholak. Alegia, alkoholak organismoan erandako ondorio guztiak, kaltegarriak al dira osasunerako?

Ikertzaile batzuek diotenez, alkohola neurri egokian hartzen denean - hau da, egunean litro laurdena baino gehiago edaten ez bada- babestzaile bezala jokutzen du hainbat eritasun kardiobaskularretan; zehazkiago esanda, onuragarria izango litzateke arterioesklerosi kasuetan, eta badirudi, estatistika batzuen arabera, hilkortasun handiagoa dagoela ez-edale direnen artean edale moderatuekin konparatuz gero; baina era berean, alkoholaren kontsumoa handitzen den neurrian, kardiopatiek dakarten hilkortasuna handituz doa.


Gaur egun teoria hau indarra galtzen ari da, eta alkohola neurri egokian edatearen aurka inor ez badago ere, ezin da esan babestzailea denik, izan ere, honen kontsumoaren justifikazio bila dabiltzan zenbaitzuk pentsa dezakete litro laurdenak babestu egiten badu, litro batek lau bider gehiago babestuko duela, eta beraz, neurririk gabe jarraituko dute "porroiarekin"...

Eman dezagun egia dela neurri egokian babestzaile bezala jokutzen duela alkoholak; halaere, gehiegizko kontsumoak bihotzean sortzen dituen kalte izugarriak ikusiz, ez luke justifikaziorik izango zentzu honetan egindako publizitateak. Ez dugu ahaztu behar hor daudela zirrosia, istripuak, pankreopatiak, nerbioetako eritasunak, etab. alkoholaren ondorio direnak.

Mundu honetako ia gauza guztiekin gertatzen den bezala, alkohola neurri egokian kontsumitzea (2 edo 3 edalontzikada egunean) ez da kaltegarria. Are gehiago, kontuan izanik atsegina dela ardo ona edatea, ez dago inolako arrazoirik hau alde batera uzteko. Hori bai, berriro esan behar dugu, derrigorrezkoa da beronen kontsumoa neurri egokian egitea.

Baina neurrigabe edaten hasten bazara; edo penak uxatzeko eta bizi-modua eramangarriagoa izateko baliu badizu ardoak; edo euforia eta poz faltsua emateko erabiltzen baduzu; edo komunikakorrago, berritsuago edo lagunartean bultzadatxo bat lortzeko edaten baduzu, ziur aski lehentxeago edo geroxeago alkohola problema izatera iritsiko da zuretzat.

*Eukeni- Arantxa*



# Construcciones ARRASATE S. L.


(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE

## Arrasatetik Arrasatera zoazenean: 34 km

**B** agatoz, bagoaz berriro be mendiruntz esango dute hainbatek. Izan ere, Arrasaten askorentzat larunbat honetako txangoa berezia izango da. Goizean goiz 9etan, kiroldegian batu eta Portaloian pistoletazo hotsa noiz entzungo zain. Bai halaxe da. Besaidekoek sorpresa polita erakustsiko dute. Denok pila-tuta Portaloian: argazkiak, ATB, bestelakorik, goiztiarrak denok batuko gara haraxe, pedalei eragiteko prest.

Hasi eta bapatean, gogorra benetan, Udalara igo behar: nekea nagusituko zaigu, baina umorea erakutsi beharko dugu. Udala auzoaren baserri-etxeak ikusi arte, irrikitan izango dugu geure burua; aurrera eta gora egin beharra. Dagoeneko ahalegin txiki samarra egin ondoren, Besaide aldera, gure eskumatara Udalatxeko haitzak utzi eta Santa Luziaraino.



Ezauketan ez duena ez da konturatu be egingo baina haitz gainean hantxe dugu baseliza polita.

Goazen aurrera, heldu, eutsi, desarroiloa aldatu; oinez be ibili beharra izango da baina Kanpazarre-  
ra iritsi baino lehen makina bat une


izango dugu ondo pasatzeko eta geure burua lasaitzeko.

Kanpazarretik gora aldatza franko eta gainera gogorrak. Eutsi beharra izango hamarretakoa egin arte, San Miguel baseliza barrenean. Jakin badakigu Besaidekoak ondo eta zintzo portatuko direla, guregan konfidantza osoa daukagu, zalantza barik talde bikaina eta langilea eta bestelakorik osatzen dute.

Gorputza tenkatu eta hiru tontoretara joan behar gero, kristoren eta egundoko aldapa izango dugu San Prudentzioraino. Adi eta kontuz! Kaskoa erabili beharko dugu.


Hemendik aurrera laua Zubillagaraino eta ondoren ospitale gaineko mendilepora Osñara jaitsi arte. Hemendik ezbairik gabe, bukaera Kiroldegian, gerokoak gerorako izango ditugularik.

K.V.V



*Salterain*

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE

# M-ak

**EKAINAK 22,  
OSTIRALA  
Gaueko 10.30etan  
MONTERRON  
PARKEAN**

(Eguraldia txarra eginez gero Kiroldegian)

Txartelak salgai aldez aurretik:  
Hire, Monte, Biona eta Eresin.

*Antolatzailea: Jai Batzordea*



Aste gazte

Azkenik!  
Gora-behera handiak jasan ondoren, prest dute herriko rockeroek entsaioak egiteko lokala. Hortaz, bada, ekin gogor lanari!!

Udako ekintzak  
(Gipuzkoako Diputazioa)

• Isaba/Belaguan, 17 eta 24 urte bitartekoentzat. Modalitateak: kirol-iharduerak (mountain bike, eskalada, ibilaldiak...). Iraupena: astebete. Datak: uztailaren 15etik abuztuaren 11era arte. Prezioa: 10.000 pta. Plaza mugatuak.

• Pagoetan, 17 eta 21 urte bitartekoentzat. Modalitatea: ekologia, natur ekintzak. Iraupena: 10 egun. Datak: uztailaren 18tik 27ra, eta abuztuaren 1etik 10era. Prezioa: 5.000 pta. Plaza mugatuak.

Musika-ikastaroak

• Zumaiako Uda Musikala: interpretazio ikastaroak:

. Abuztuaren 2tik 10era: Pianoa, Xirula, Bibolina, Kitarra eta Ahozkatze-Teknika.

Prezioak:

- partehartzaileak. 22.000 pta.
- entzuleak 14.000 pta.
- egun bat 3.000 pta.

. Abuztuaren 6tik 11ra: Musika-Pedagogia

Prezioak: - partehartzailak 15.000 pta.

- egun bat 3.000 pta.

. Izena emateko epea: uztailaren 15a baino lehen.

Lehiaketak

• IX Toki Ageriko Pintura-Lehiaketa. Ekainaren 17an. Arrasaten. Sariak: 1. 50.000 pta. eta garaikurra. 2. 35.000 pta. eta garaikurra. 3. 20.000 eta garaikurra.

• "Festivales de Navarra" Pintura-Lehiaketa. Gaia eta teknika libreak. Sariak: 2.000.000 pta. Lanak aurkezteko epea: 90-6-30.

• Euskal Herriko Literatur Sariak:  
a) "Jon Mirande" Nobela. Sariak: 1.000.000 pta.

b) "Lizardi" Poesia. Sariak: 600.000 pta.

c) "Pedro I. Barrutia" Antzerkia. Sariak: 600.000 pta.

d) "Pedro Axular" Saiakera. Sariak: 800.000 pta.

Euskaraz. Gai libre. Lanak aurkezteko epea: uztailaren 15a baino lehen.

• Euskadiko Arte Gaztearen I. Erakusketa. 30 urte baino gutxiago-koentzat. Modalitateak: pintura, eskultura, grabatua eta zeramika. Sariak: 400.000 pezetako 6 beka (arte-ikastaroak egiteko). Inskribapenak: irailaren 14era arte.

Bekak

• 91-92 ikasturtean Boloniako (Italia) Unibertsitateko edozein Fakultateetan doktorego-gradua lortzeko beka. Italiara ezagutzen duten 30 urte-tik beherako lizentziatuentzat.

• 91-92 ikasturtean Suitzako Musika Eskoletan, Kontserbatorioetan nahiz Arte Ederretako eskoletan ikasteko beka. Lizentziatuak nahiz karre-rako azken kurtsoa egiten ari diren 35 urtetik beherakoentzat. Frantsesa edo alemanera jakin behar da. Diru-kopurua: hileko 1.350 F. suitzar. Epea: 90-9-21.

MUSAKOLA  
OSTATUA

Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak


Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50

ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77



ZENBAKI

Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

**ETXEBIZITZAK**

- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- **Konpartitzeko pisu bila.** Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- **Errentan pisu txikia edo teilatupea hartuko genuke bikote batek.** Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- **Bi oheko logela eskaintzen da.** Tfnoa: 79 07 73
- **Bikote batek teilatupea edo pisu txiki- ren bat hartuko luke.** Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.
- **Cambrils-en (Tarragona) apartamen- tua alokatzen da.** Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- **Alokatzeko pisua behar dut Arrasaten edo Aretxabaletan.** Tfnoak: 79 13 95 eta 79 16 57 goizeko 9etatik arratsaldeko 2ak arte. Flor Tellez.
- **Torrevejan bungalow-a alokatzen da** ekain, uztaile eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47
- **Loramendi kalean 6.pisua salgai 80 m2.** Amuebletuta. Tfnoa: 79 24 89 (arratsal- dez)
- **Salouko Pinedan apartamentua alo- katzen da.** Tfnoa: 79 45 74.
- **Laredon apartamentua alokatzen da.** Informazio gehiagorako deitu 79 52 80 tfnora.
- **Pisu amueblatua behar dut alokari- ruan.** Dei 79 13 95 edo 79 16 57 tfnora astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik eguerdiko ordubietara. Flor
- **Neska ikasleak pisua behar dugu alo- katzeko.** Tfnoak: 72 11 43 Begoña, eta 55 45 35 Juana.

**LANA**

- **Esperientzia duen neskak etxeko lanak egingo lituzke.** Tfnoa: 79 97 58
- **19 urteko neska euskalduna prest etxe- ko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Interesatuek dei tfno honetara: 79 54 79.
- **Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 21 09. Gauzez.
- **Latin klaseak ematen ditut.** Interesa- tuek 79 50 88 Tfnora deitu. Garbiñe.
- **Neska euskalduna behar da Donostia- ko etxalde batean.** Ez da bakarrik egon- go. Soldata ona. Interna. Tfnoa: 40 00 86 bulego ordutan.
- **Gazte taldek pinudiak garbituko lituz- ke edo antzekoak.** Tfnoa: 79 97 84 Ka- zintxo
- **Umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke.** M<sup>a</sup> Jesus. Tfnoa: 79 99 17
- **Emakume euskalduna etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Ikasle unibertsitarioak udako hilabe- teetan edozein lan egingo luke.** 79 51 95 telefonora deitu.
- **18 urteko gaztea udako hilabeetan edo- zein lan egingo luke.** Tfnoa: 79 51 95.
- **Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Interesa- tuek 79 98 34 tfnora. deitu, arratsaldeko 13.00ak eta 16.00ak bitartean.
- **Eskorlitzan klase partikularrak.** Mai- lak: OHO kurtsu guztiak. REM-BUP- UBI, euskarazko klaseak. Ek REM-BUP- UBI, euskarazko klaseak Ekaina, Uztaile, Abuztua. Arrazoa: Tfnoa: 79 17 19. (20.00-22.00 ordu bitartean)
- **1 REM (euskara)eko neskatilari natur klaseak emateko pertsona behar da.** Tfnoa: 79 39 49

**SALEROSKETAK**

- **Bigarren eskuko argazki makina refle- xa erosiko genizuke prezio onean badu- zu.** Jabier 79 80 86
- **Opel Corsa GSI, SS- 2145-AF salgai.** Tfnoa: 79 46 41 Felix
- **Moto Guzzi 1000 California salgai.** Tfnoa: 79 87 62
- **100 W-ko Marshall kitarra anplifika- dorea salgai.** 100.000 pza. Tfnoa: 79 62 71.
- **Bizikleta bi salgai: 1 paseokoa, 2 korre dorekoa: Orbea Altube, Rueda de 6000 berri berria.** Tfnoa: 79 33 45

**DENETARIK**

- **Irungo ikastolan kontratu finkoaz la- nean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren ba- tekin permuta egingo luke.** Interesatuek dei dezatela tfno. honetara: 79 26 59
- **Edozein motatako liburuak forratzen dira,** liburutegikoak, hiztegiak, etab. In- teresatuek deitu: 77 00 29 Josefa
- **S.Clara eskerrak.** F.G.
- **Gorka eta Joseba:** Zoriondu nahi nuke zuen bizitza/ ez naiz lhintz, ez naiz lhint- za./ Jo ta fuego da nire hitza. Anonimo bat zaizue mintza.
- **Jo ta sua!!! Gezurra dirudi zuek euskal- udaleku batekoak izanda, Fuego esa- tea.**
- **Urtxintxako kurtsilokoei:** dei nazazue aste honetan, lanari buruz hitz egiteko. Tfnoa: 42 06 84. Albaro.
- **Laudioko ikastolan kontrato finkoaz lanean ari den andereño batek Duran- go-Arrasate inguruko ikastoletako irakas- leren batekin permuta egingo luke.** Tfnoa: 94- 681 40 25

**ARRASATEN HILDAKOAK**

**Enrique Rodriguez Curado**  
Ekainaren 7an. 80 urte

**Tomasa Pikasari Lizarazu**  
Ekainaren 12an. 89 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

Azoka 1,  
20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

## Famauen ahotik

### Paulino Ibabe eta Sabina Dolara (II), animalixak kapetako moduek



Sabina eta Paulino, Jesus semiekin

#### Katuek, txakurrek...kapetan

**Paulino:** Katu arrak, txakur arrak, ollaskuek, txarrikuma ordotzak eta hala-kuek kapetan nituen.

Katuei eñ bihe jako zaku barruen muturre sartu eta korrarizuen hartu zakue eta atzeko hanketatik eutzin beste batek. Txakurrekin be igual eitten da.

**Sabina:** Geuken ezkondu giñenien katu eme bi ederraak, mimaute umiek letxe, altzuen eukitten zittuen amak pe katuok. Da klaro katu denporie allegetan da, hor febreruen ero, katu eme ederrak eozen da katu arrak etorten zien nunbaitetik eta hemengo eskandalueee, gabien lorik eitten be ez auen izten.

Honek esauzten, hau ezta bizimorue, katuok lorik eitten be ez duskue izten erremerixo bat ein bihau. Kendu emiek eta katu ar bi ipiñi kapaute. Santo remedio haxe izen zan. Katuek jatorrak euki gittuen, eta trankil lo eitten gauen katuen zaataik barik.

#### Txakurrek kapetan

**Paulino:** Maskaño kabreate auen txakurrek betik ihixi eitten eutzela Artabillan ziber txakur emiana ta mekauden txakurroi kapau eñ biher auela.

Txakurrorrek dozenerdi urte auken da

esan nutzen; ba nik kapau eñ gustat gure bok, bañe ni potro ale bixek ataraten enixuek eh, jota akabau eñ bihe jok eta!

Bat atarako jutzau oinguen eta gero bestie atarako jutzau, eta efetibamente atara gutzen potro ale bat txakurroi eta gero osatu zanian bestie, da osotu zan txakurroi. Makiña bat bider esan dust, ezkerak kapau gauela, oiñ zikera eztok iñora faten.

#### Ollaskuek kapetan

**Paulino:** Ollaskue kapetie konplikue da, ipurdiko zulue baiño beratxau eñ bihe jako korte bat. Baiñe geraketan da beste tela moruko bat barruen ebai barik, ezta ebaitten kutxilluek. Sartu orratza harixaz da hareaz tirtu eñ bihe jako.

Gero hatzamar bakararra sartu eta topau eñ biher, izeten da.

Ollaskuek pe ezautu eñ bihe die eh! Batzuk izeten die haundixek iguel da txantxar txikixe bauke, haik eztauke gari alie baño potro ale haundixau.

Ollaskuek kapetako txantxarrak euki bihe dittu onak, gañekue eta azpikue eh! harek eukiteitu potro ale onak.

**Sabina:** Lehena txittak etxien hasten zien da ollaskutxuek txutxurrutxu txantxarraz da hareik eukien aletxuek haundixau.

#### Jentiek ondo agradeziru

**Paulino:** Sekule inoi eztutzet iñun duro bat eskatu. Nik pentsetan dot laguntasan bille datorrena, nezesidarie daukelako datorrela eta hari dirue eskatie ez, etxat gustau izan kobretaik.

Baiñe jente ona esku-zabala dau, iñon kejaik eztauket oso ondo agrareziru dustie danak.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

## Zelebrequerixak

Pronostikuak errez eitten dabe huts. "Oilla"neko Iñaxio heste-sobreko miñekin "apendicitis" etsipena emonda Bilboko ospital batera estu eta larri eruan bihar ebenian, hau izan zan "Asmakillo" izeneko sasiletrau baten kontsejua: Ba-daezpada hildako-kajan eruateko.

Esan eta egin. Hildako-kajan sartuta eruan eben kamillan eruan biharrian, bi buelta alperrik ez eittiarren. Inaxio trantze hartatik salbau zan eta kajia ganbatan gorde eben hiltzen zanerako.

Antzerakoa da San Bartolome-txiki egunian Elgoibarren pasau zena be. "Azkonarra"neko Kaximiro, sokamuturrian zebillela zezenak harrapau eban. Han inguruan suertau zan mediku bat eta honek ikusi orduko igarri zotsan oso grabe zeuala eta ahal bait lehen ospitalera eruateko aginddu eban.

"Talaixa", "Usurbil" eta "Errebiro"ren artian hartu ebaen andan bezala eta arrapataka baten ospittaleruntz abixau zien. Bidian matarifia topau eben eta hari be, hiltzen kontuetan entendidua zalako ere, iritzixa eskatu zotsen. Hartu zotsan pultsua eta:

- Berandu zabitze. Honen amarsi eta funzionamentua gastau dittuk. Hau joan dok.

Ospitalera joan eta ohe gaiñian laga eben konorte barik. Medikuai eta abadiak deittu ondoren Errebiro bakar bakarrik laga eben Kaximiron gorputz onduan eta beste bixak ospa egin eben sokamuturre-ra.

Halako baten Kaximiro pixkat onerazten da eta burua altzatuaz:

- Nun nago ni?

- Ospitalian hilda -kontestau zotsan Errebirok.

- Ni...

- Egon hari ixilik! Ez ete jakixau ba? Jesus! Sustorako lain be...

Juan Martin Elexpuru

## VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE



KILI-KOLO

Ferreries 21

Tfnoa. 797006

ARRASATE





Eugenia Berezibar 1930

**L**


ehengo Danborrada 1930. urtearen inguruan egin zen Arrasaten, baina ez San Juanetan orain

bezala, abenduan, Santo Tomasetako jaieten baizik.

**Eugenia Berezibarrek** hamazazpi urte izango zituen orduan. Plus Ultra tabernako Amadeo Berezibar hezun konpontzailearen alaba zen. Hamabost seme-alaben arteko txikienetakoa. Santo Tomas jaietan banderaduna izan zen Eugenia, Biteri eskolara joan ohi zen.

Argazki hau atera eta gutxira gaisotu egin zen. Aita Amadeok hotz batek gaisotu zuela esaten omen zuen. Hogei urterekin hil zen. Arrasateko danborradak seguruenik izan zuen lehen banderaduna.

**PUB  
HAIZEA**




**ENARA**   
OSAGARRIAK


Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32




# Hieroglifikoak




Gaizto



Transilvaniako kontearen elikagaia



Gehiegi jan, soberan edan eta...



Abila

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa:77 08 15

**ARTE LENIZ**

koadro eta  
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

### Poetak eta sasiak

Ez bait da agindutakoaren hezurdura ere,  
ez bait du urrutitik iragarritako dizdira bermatzen,  
ezta duintasunez igarotzeko aukerarik ematen,  
ez ditut gogoko  
bizitzari maite maite eginez  
kontuan aritzen diren sasi poetak.

Ez bait zen agindutakoari amen egin behar,  
hurbilagotik begiratu beharra bait zegoen  
eta duintasunak dizdirarekin  
zerikusirik ez bait du

ez ditut gogoko  
euren buruari maite maite eginez  
negarrez aritzen diren poeta-sasiak..

G. M

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**J. M. Heriz**

**Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak**

Qtalora Lizentziatua. Arrasate

■ **Telebistako programak aurkezteko.** Aurkezle bila ari da ETB eta jakingarri izan daiteke iragarki publikoetan adierazi bezala, zer eskatzen dieten Iurretakoek hautagaiei.

- Erakutsi onekoa.
- Kultur-heziketa sendoa.
- Komunikazio doaia.
- Euskara eta gaztelera ahoz bikain menderatzea.
- Ahots jantzia (ebakera, doinuera, zolitasuna, etab.)

Jakingo balute gure artean dugun altxorraz, teleaurkezlerik barik utziko gintuzkete.

■ **Publizitatearen gorabeherak.** Burruka latza, telebista pribatuen agerpenak estatu mailako komunikabide guztien artean ekarri duena, publizitatearen pasteletik ea nork harrapatu zatirik handiena. Gauza bera gertatzen zen irrati berriak agertu zirenean eta, nola ez, *El Independiente*, *El Mundo* eta *El Sol* egunkariaren plazaratzearekin batera.

Ford, Opel, Citroen eta antzerako auto markek ez dute horregatik, eta bapatean, publizitate-kartera handitzen, printzipioz behintzat, daukatena tirada edo audientzia jakin batetik gora dabilzanean artean banatzen baizik, harik eta merkatua finkatzen den arte.

Une honetan, adibidez, egunkariaren arteko lehia ikaragarri da. Berandu baino lehen bat baino gehiago pikutara joan daiteke. Adituen artean esaten denez, *El Mundok* 25.000 irakurle lapurtu dizkio El Paisi eta sekulako mina egin omen dio *Diario 16i*. Azken hau eta *El Independiente* agertzen dira egoera honen biktimarik handienak bezala.

Hala eta guztiz ere, aurikuspenek diotenez, publizitateak gora egingo du Estatu espainiarrean. Nola litekeen? Besteak beste, beste herri batzuekin alderatuz gero, publizitatea apenas garatu delako eta eskualde eta herri mailako publizitaterik apenas egin delako atzo goizaldera arte, nolabait esatearren.

Geure kasuan, oraintxe ikus dezakegu Arrasate Press eta Arrasate Telebistaren inguruan ari dela publizitate apur bat egiten, eta egiten dena oraindik - normala denez, bestealde, hastapenetan bait gaude- gordin samarra.

■ **Camerunen ezustekoa.** Ostiraleko *Berriak* grabatzen ari ginela, bapatean, aldemeneko pantailan jende guztia saltoka eta zoroen pare. Errepikaldian Camerundarren gola ikusi genuen. Hango barreak!

Joxe Aranzabal



## gusto baduzu

■ **Oraingoz izenik gabe:** Jose J. Bakedanok zuzendutako filmea, ostiralean, 21.30etan. Antzezleak Iro Landaluze, Felix Arkarazo eta Elene Lizarralde.


Baserri baten inguruetan girotutako filmea dugu, bertan bi anaia bizi direlarik. Emagalduta eza gutzen dute, eta lagun minak bilakatuko dira.

■ **Eibarko bizikleta:** Larunbat eta igandean, aurtengo Eibarko bizikletaren azken bi etapak zuzenean ikusteko aukera. Larunbatean, 15.25etan hasita, eta igandean, berri, eguerdiko 12.55etan. Munduko txirrindulari onenatarikoekin osatutako tropela, elkarren kontrako borrokan.

■ **Blazing Saddler:** 1974ean zuzendu zuen Mel Brooks-ek pelikula hau. Bertan, Bart sheriffaren gorabeherak kontatzen zaizkigu. Jim pistolero trebea lagun duela, herri bateko bizilagunak Heddley Lamar-en bandaren hatzaparretatik askatu behar ditu.

Antzezleak Cleavon Little, Gene Wilder eta Slim Pickens.

## bideoak



### Iraneko loria galduta

Dara, Iraneko erregea, gazte harro baten gisa hezi zuten. Urtero lurralde guztietatik opariak bidaltzen zizkieten menpekotasuna agertzeko. Egun batean, mezularia bialdu zuen Greziara urrezko zerga eskatuz, baina troinoa eskuratu berria zuen Eskander erregeak uko egin, bere armada hartu eta Dararen lurretarantz abiatu zen.

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

asteke

**PROGRAMAZIOA**

**18 ASTELEHENA**

- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.25 **Mondrasport**, Jon Anduezak zuzendua.
- 20.50 **Umeen danborrada**, Erreportaia.
- Berriak** (errepikaldia)

**19 ASTEARTEA**

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.25 **Mondrasport** (bezperakoa)
- Umeen danborrada** (bezperakoa)

**20 ASTEAZKENA**

- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.25 **Zenbat buru, hainbat aburu**, mahaingurua. Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Arrasateko jaiak.
- Berriak** (errepikaldia)

**21 OSTEGUNA**


- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.25 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

**22 OSTIRALA**

- 20.00 **Berriak**, Begofia Garaik aurkeztua.
- 20.25 **Erretrotua**, J.R. Elortzak zuzendua. Gonbidatua: Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkatea.
- 20.55 **Musikantoi**, Mikel, Asier, Patxi eta Pepek aurkeztua.
- Deba Gariako musikari buruzko teleaierik ikusgarriena.
- Berriak** (errepikaldia)

**23 LARUNBATA**

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.25 **Erretrotua** (bezperakoa)
- 12.55 **Musikantoi** (bezperakoa)



**G**onbidatu berezia izan genuen azken *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan. Elbarritu fisiko eta psikikoei buruz hitz egin zen. Fertxu Aranbururekin batera, **Jesus Mari Martinez** izan genuen, Fertxuren koinatua. Arreta handiz segitu zituen grabazioaren gorabeherak. Gustora joan zen. Baita gu ere.



**E**lbarrituei buruz hitz egin zen *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan, bai. Gonbidatuen artean **Juanjo Azkarraga**, Donostiako Katea Elkartekoa. Automobila hartu, gidatu, guzti hori bakarrik, ATBra igo ezin zuela ikusteko. **Jabi Aranari** esker igo eta jaitsi ahal izan genuen. Inork ez zuen umorea galdu, baina argi gelditu zen gu ere ez gaudela gertatuta elbarritu fisikoak ere lasai asko etor daitezten.



**M**usikantoi programaren arrakasta ulertzeko **Pepe Arregik** gure bailarako musika taldeekin egiten dituen grabazioak ikusi behar dira. Efektu-mahaia eta kamara hartu eta talde bakoitza bere entseiu lekuan grabatu ohi dute. Orain arteko emaitzak oso politak izan dira. Pepe Almenen dago irakasle.

comercial  
san juan

Garibai 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
BRIKOLAIA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Alfonso X. Jakintsua 5,  
Tfnoa: 79 70 36  
ARRASATE



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Burua argi izango duzu aste honetan. Lagunarteko harremanei errebasotxo bat ematea eta beren helburuen zergatiak ulertzen saiatzea betegari izan liteke. Lana rutina irudituko zaizu.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Abante gutxi eta umore txarraren jabe izango zara eta honen eraginez somenerako ahalmena gutxitu egingo zaizu, edozein arazo aurrera ateratzerakoan. Ez ibili hainitsu amodio horretan.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Su eta gar egongo zara eta parean tokatzen zaizun guztia irentsiko duzu, gorabehera handiak izango dituzu ondorioz, eta bizimodua aurrera ateratzeko orduan trabak aurkituko.



**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Ez zaitetz fida ez familia ez lagun ezta bururatu zaizkizun ideiekin, hasiera batean emankorrak irudituko bazaizkizu ere, oker ibiltzea suerta liteke.




**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Tentsioan zaituen egoera hori sustar-sustarretik moztea komenigarria litzateke, giroa zatartu egiteko arriskua bait dago. Aurrera begira baino hobeto duzu egunerokoa bizi izaten saiatzea.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Jarriko duzun borondate eta besteekin izango duzun jarreraren araberakoa izango da astea Virgo. Lan arloko eginahal hori barre pixka batekin ez baduzu homitzen alperrikakoa suerta liteke.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Ez zaizu komeni burubelari aritzea lan horretan; besteek ere egin beharko dute zozoz, ezia? Baliteke oztupoak zuk zeuk sortutakoak izatea; saiatu zergatiak bilatzen.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Baliteke aste ez oso atsegina izatea datorrena, giroa nahiaren kontrakoa izan bait daiteke; halere, garaiz oharitu eta baretzeko gauza izango zara.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Denbora lanean ematea komeni zaizu etorkizunerako bidea zuzaltzeko asmorik izanez gero. Inongo elkarriketarik ez ebitatu, eztabaidak, ostera, bai. Zaindu itxura.



**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Lanerako baino ez zarela bizi irudituko zaizu, bizi ahal izateko lan egiten dugula ez ahaztu behintzat. Eginbehar ugari izango dituzunarren, lasai hartu, zuk bakarrik egingo badituzu ere.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Datozen egunetan nagiki izango zara eta adar jotze ederren bat jasatea ere litekeena da. Gero haserre bizian egongo bazara ere, egindako okerra zuzentzeko berandu izan liteke.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Ez zaizu komeni jeloskor azaltzea, ez lanean ez etxean. Statusa gordeko baduzu, gogor hartu beharko lanean eta edozein eskaintza egiten dizutela ere, onartu beharrean izango zara.



## ARRASATEko UDALA

### EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasten ari diren arrasatearrentzat bekak ematen ditu. Argibide gehiagorako dei 79 09 00 telefonora edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Arrasaten, 1990eko ekainaren 15ean




# Haitzen

# Equina

DANTZA TALDEAK:

- ARETXABALETA
- BERGARA
- SORALUZE
- GASTEIZ
- LESAKA
- ONDARRU
- ERRENDERI
- ELORRIXO
- ARRASATEKO

- TXIKITXU
- LORE GAZTEAK




# Arrasate

ANTOLATZAILEAK:

LORE GAZTEAK  
ETA  
TXIKITXU

# Ekainak-17



Larragain etxe azken eguna

*Diru asko ala gutxi,  
ez ondotik pasa,  
ez begiak itxi.*

*Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi.*

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxe: 791489 ARRASATE



**Zeure gogoko altzariak**